



URTEURRENA ANFAS

**Bernoako galtzadak,
ibilbide luze
bihurtuta jendea
hartuko du
udatik aurrera** / 9

**Altsasuko Udalak
oinezkoak
lehenesteko
Gartzia Ximenez
kalea egokituko du** / 8

**Bi txapeldun
sakandar
Aritzalekuko
Triatlloan: Mikel Astiz
eta Hegoi Lakuntza** / 16-17

**Xotak koparekin
borobildu nahiko
luke emakumezkoen
senior
denboraldia** / 18-19

**Juantxo Skalariren
'Unplugged'
kontzertua izanen
da ostegunean
Altsasun** / 23



Erabiltzaileak eta senideak Olentzerorekin elkartu ziren 2019ko eguberritan. ANFAS

Anfasen zerbitzu eskaintza zabala

Adimen urritasuna duten pertsonen eta hauen familien alde lan egiten duen irabazi asmorik gabeko elkarte da Anfas. Pertsonen, haien familiei eta gizarteari berari hainbat zerbitzu eskaintzen dien elkarte. Anfasendako egun berezia da gaurkoa, urteurrena baitu

Eneida C. M. / Alfredo A. I. LAKUNTZA Gaurko egunez, duela 60 urte, 1961eko maiatzaren 28an, guraso talde batek Anfas elkarte sortzea erabaki zuen, irabazi asmorik ez duena. Anfasen helburua da adimen urritasuna edota garapenean zailtasunak dituzten pertsonen eta beraien familien, haien bizitza pertsonaleko proiektuak garatu ditzaitez bermatzea eta eguneroko bizi kalitatea hobetzea. Familia aitzindari haiei bezala, gaur egun Anfasen hainbat familien senideei programak eta zerbitzuak eskaintzen dizkie. Baita familia horien seme-alaben eskubideak defendatu ere.

Anfasen sakandarrei ere zerbitzua eskaini izan die. Baina 2017ko azarotik ibarrean bertan eskaintzen dituzten zerbitzu horiek, Lakuntzako lan eskola izan zen eraikinean, Sakanako Mankomunitatearen egoitzaren atzeko aldean. Maite Aranbillet Galzagorrik, Sakanako Anfaseko arduradunak azaldu digunez, 91 sakandar dira bazkideak eta horietatik 47 familia dira, Anfasen zerbitzuren bat erabiltzen duen senideren bat dutenak.

Aranbilletek azaldu duenez, ibarrean eskaintzen dituzten zerbitzuen artean 0 eta 6 urte arteko umeendako arreta goiztiarra dago. Bere helburua da "ahalik eta lasterren erantzuna

ematea arrisku egoeretan edota garapenean ematen diren nahasketen ondorioz suerta daitezkeen aldi baterako edo behin betiko beharrei". Horretarako, logopedia, arreta orokorra edo psikomotrizitate saioak eskaintzen dituzte. Joan den urtean 0 eta 3 urte arteko 32 haur izan zituzten eta 3 eta 6 urte arteko 16. Aldi berean, zerbitzuko erabiltzaileen familiekin ere lan egiten dute.

Gizarte, akademia eta komunikazio gaitasunak programaren bidez, besteak beste, lortu nahi da "irakurmena eta idazmenaren jabetze eta garapena lantzea, pertsonen arteko erlazioetan portatze eragokiak sortu eta garatzea eta

ahozko komunikazioa sustatzea, edo komunikazio sistema handigarriak edota alternatiboak garatzea. Saio horietan 2020an 6 parte hartzaile izan ziren. Aranbilletek gaineratu duenez, haiek ere informazioa eta aholkularitza ematen dute, familien prestakuntzaz arduratzen dira eta. Sakanako eragileekin koordinatzen dira. Horrekin batera, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako profesionalak sentsibilizatzeko, haiekin bilerak egiten dituzte arreta goiztiarrean aritzen direnak. Bisitak eta hitzaldiak egiten dituzte ere.

Kronologia laburra

- **1961** Anfas sortu zen.
- **1972** Anfasen Sakanako batzarra sortu zen.
- **1982** Hezkuntza bereziko gela bat zabaldu zuten dozena bat sakandarrekin.
- **1987** Tasubinsa tailerra martxan jarri zen Lakuntzan.
- **2017** Lakuntzako egoitza mustu zuten.

LAKUNTZA

Anfasen eskaintzen dituen zerbitzuen berri nola izan zenuen?

Duela bospasei urte. Egia esan, Anfas Sakanan lanean zegoela entzuten nuen. Gu Iruñera joaten ginen, beste elkarte batera. Zehazki, gizarte trebetasunak lantzerako. Anfasek egoitza Lakuntzan jarri zuenean: *Anfas hemen izanda...* Laguntza akademikoa behar genuela ikusten genuen. Webguneak begiratu eta beraiei hots egin nien. Berehala informazio osoa eman zidaten. Eta zer behar nuen azaltzean ikusi nuen hemen bertan zerbitzua nuela.

Anfasen Sakanako zerbitzuen artean zehazki zein erabiltzen duzue zuek?

Hasiera batean, duela bospasei urte, hasi ginen gizarte trebetasunak lantzen. Beste neska batekin batera egiten zuen. Idazketa eta irakurketa ere lantzen zituen. Gizarte trebetasunak taldean egin beharko lirarteke eta ondoren talderik sortu ez zenez, idazketa, irakurketa eta matematika lantzen ditu. Azkenean, gizarte trebetasuna baita. Zeren egunerokoan gatazka bat baldin badu, lehenengo horretaz hitz egin behar da eta horri irtenbide bat eman, ondoren lanean hasteko. Bere ahulgune bat hori da; bere sentimendu horiek ez baditu kontrolatzen ezin du lanik egin. Azkenean, hori ere lantzen da. Zerbitzua oso malgua da. Idazketa eta irakurketa lantzerako, baina sentimendu horiek landu behar badira lantzen dira momentu horretan.

Berez, profesionalak ume eta gazteen beharretara egokitzen dakite.

Bai. Gure kasuan Anfasekin bizi duguna ez da zerbitzu edo saio itxia, baizik eta haurraren behar araberako moldatzen dute egin beharreko lan mota. Alde horretatik, oso pozik gaude. Sekula ez dugu ezezkorik jaso, baizik eta "ea nola egiten dugun hau! Ea nola lantzen dugun hau!" Oso irekia da.

Momentuko erronkak du landu beharreko bat eta beti dago "saia-tuko gara bat", ezta?



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea - Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 - Iruñea



"Duda kasuan, hurbildu, galdetu eta ezagutu Anfás"

ESTIBALIZ SALINAS BURILLO

LAKUNTZARRA ETA OIHANEN AMA

Oihan 12 urte dituen mutiko lakuntzarra da. Amak azaldu duenez, "beti laguntzeko prest egoten da. Lakuntzako ferian jarritako postuan goiz osoa saltzen egon zen"



Oihan eta Estibaliz. UTZITAKOIA

Bai. Esaterako, saioan irakurke-ta lantzen dugu, baina momentuan, buruan duen gai hori edo kezka, batera lantzen dugu. Pertsona bere osotasunean; dena, orokorrean, lantzen da.

Zein maiztasunarekin erabiltzen duzue zerbitzua?

Oihan astean hirutan joaten da. Goizean ikastetxean eta arratsaldean doa Anfásara. Saio bakoitza 45 minutukoa izaten da.

Oinez joanen zarete.

Oinez eta bera bakarrik joaten da. Berarendako oso garrantzitsua da bera bakarrik joatea. Autonomia. Dena da. Orduetgia: "kontutan hartu zer ordu den, atera beharko duzu..." Gauza asko lantzen dira. Familiarendako

ere, beste hurrekin moldatzeko, ordutegiak, hemen hurbil izatea, oso garrantzitsua da.

Lakuntzan bertan izatea zerbitzua "dena da" zuendako, ezta?

Bai. Anfás eskualde guztietan dago. Hemen, esate baterako, zerbitzu osoa euskaraz dugu. Guretako hori ere oso garrantzitsua da. Hurbiltasun hori.

Sakandarrek Anfásen zerbitzuen berri badute?

Edozein zalantza izanez gero, nik galdetzer animatuko nituzke. "Ez dakit nire haurrendako ona izanen den edo ez". Hurbildu eta galdetu. Hemen, ondoan daukagu. Gainera, oso profesional onak daude eta dauden zalantza guztiak berehala argituko dizkizute. Zuretako zerbitzua bada, primeran. Ez bada ere, lagunduko dizute. Ez gelditu "niretako izanen da edo ez" dudarekin! Hurbildu, galdetu eta ezagutu Anfás. Agian, dugun ideia baino askoz ere gehiago da.

Elkarrekin sortu zen Down sindromea zuten premiak asetzeko. Baina elkarrekin helburuak zabaldu dira.

Baditu zailtasuna duten, edo TEA, TGB... gauza asko daude. Edozein hurrek bere garapenerako behar duen laguntza eskaintzen du. Beraz, edozein traba-edo badu, hor laguntza jaso dezakezu. Daude: logopedia, gizarte trebetasunak, trebetasun akademikoak, aisialdirako taldea, helduendako programa ere badute... Anfásen izugarritzko lana egiten dute. Oso zerbitzu eskaintza zabala dute.

"Zerbitzua Lakuntzan egotea pauso handia da"

AINHOA BETELU SATRUSTEGI ARBAZUARRA ETA LIZARREN AMA

Lizar Atakondoa eskolan hasi zen ikasten eta gaur egun Iruñeko Andres Muñoz Garden-en ari da ikasten. Gainera, Anfásen Lakuntzako egoitzara ere joaten da astean bitan

IRURTZUN

Anfásen eskaintzen dituen zerbitzuen berri nola izan zenuen?

Atakondoa eskolan esan zidaten Lizarrandako logopedia saioa gutxi xamar zela, eta eskolatik kanpo saio gehiago behar zituela. Nora jo nezakeen galdetu nuen eta esan zidaten Anfásen bitartez egin zitekeela. Eta nire sorpresa izan zen Anfás Lakuntzan dagoela eta hara joan nintekeela. Nik uste nuen down sindromea zutenak joaten zirela bakarrik. Baina hori ez da horrela. Edozeinendako irekia dago. Arazoren bat baldin badauka, zerbitzu batzuk ematen dira han. Eskolatik pista eman zidaten. Mankomunitatera hots egin nuen Sakanako Anfásen nola hitz egin jakiteko.

Atakondoa eskolan ikasten du Lizarrrek?

Lehendabiziko urteetan bai, 9 urte bitarte. Ikasturte hasieran ikastetxe aldaketa eskatu nuen. Bi eskola erakutsi zizkidaten: Iberoko Isterria eta Iruñeko Iturrama auzoko Andres Muñoz Garde. Isterria kontzertatua da eta ez zegoen tokirik. Andres Muñoz Garden begiratu genuen, tokia zegoen eta berehala aldatu zitekeen ikastetxez. Ikasturtea hasi bazen ere, ilbeltzetik beste tokian hasi zen, orain arte.

Lizarrak logopedia behar zuelako jo zenuen Anfásara. Beste arlo batzuk lantzen dituzue orain?

Lehenbizi logopedia saioarekin hasi ginen bakarrik, astean behin. Ondoren aukera eman zidaten akademia gaitasunak lantzeko, hau da, irakurtzen eta idazten ikasteko saioa eskaini zidaten eta baietz esan nien. Astean bitan joaten da egun batez logopedia lantzeraz eta bestean akademia trebetasunak. Astean bitan joaten gara eta oso kontent, oso ongi.

Berezitasuna Lizarren adina da, ezta?



Ainhoa eta Lizar. UTZITAKOIA

Sakanako zerbitzuan denak txikitxoak dira eta, nik dakidanez, Lizar helduena da. Badago neskata bat, baina gazteagoa da, 15 urte izanen ditu. Lizarrak aurten 21 urte egingen ditu. Zaharrena da alde handiz. Ez dakit zenbat denbora gehiago iraunen duen, zeren badauka epe muga. Ez dakit hurrengo urteraino izanen den edo zenbat denbora. Zeren Andres Muñoz Garden hurrengo urtean bukatuko du zikloa. Suposatzen da gero, segur aski, Lakuntzako Tasubinsara, lanpostu batera bideratuko dutela.

Logopediarekin eta akademia gaitasunak lantzen segitzerik izanen duen oraindik ez dakizu.

Ez dugu horretaz hitz egin. Esan zidaten epe muga bat dagoela, baina ez dut gogoratzen.

Anfásen Sakanan zerbitzu hori izatea nola baloratzen duzu?

Zerbait zoragarria iruditzen zait. Behar zen, eta behar da. Azkenean, Iruñera bideratzea dena, ezinezkoa da. Kilometro asko egin behar dira. Irurtzundik gertu nago. Baina, hala ere, nahia-godut Lakuntzara joan. Kostatzen zait gehiago joatea eta ez dut pentsatu behar non aparkatu edo

zer egin behar dudun. Niretako Lakuntzan zerbitzua izatea pauso oso-oso handia da.

Zure esperientziatik, zer esanen zenieke sakandarrei?

Iruditzen zait informazio hori gizarte zerbitzuek edo pediatrek izatea komenigarria dela. Zeren informazio hori nonbaiten galdu egiten da. Arazoren bat duen umeen gurasoei informazio hori ematea oso komenigarria da. Gutxienez jakin nora joan. Oso gomendagarria da informazio hori izatea. Anfásen hori daude, gu laguntzeko. Gainera, zerbitzu asko dituzte: akademia trebetasunak landu, logopedia, psikomotrizitatea... Lagundu gaitzaketen gauza asko daude. Eta askotan ez jakitea pena da. Terapia horiek zenbat eta lehenago egin, orduan eta hobea. Nik, esaterako, Lizar txikia zenean, urtetan Iruñera gauza batera eta bestera joan izan naiz. Erotezko modukoa. Hemen hori guztia izatea pauso handia da. Arazoak dituzten umeen gurasoei aholkatzen diet dudarik gabe galdetzeko. Jendea animatu dadila! Zerbait handia da, zure seme-alabengatik egitea merezi duena.



ASTEKOA

AITZIBER GRADOS MUÑOA

Angelu zenitalaz haratago

Pausoz pauso, nire gaintik igarotzen zarete, oinez. Zuen oin zein ibilbidearen sostengua naiz, bidea lotu ahal izateko orpoetako euskarria. Urrats horietan, neuri begira zoazte gehienak. Beno, edo gainerako harri laukidunei begira, agian. Azkenaldian inoiz baino gehiago begiraten gaituzue, miretsiko bagintuzue bezala; eta pentsatzen hasia naiz ez ote zaretzen gurekin obsesionatu. Edo burua altxatzea kostatzen zaizue agian?

Eguneko menuan: estropezuak, belaun erreak, gargajoak eta zakurren kakak ditugu; eta azkenaldian gureganako begirada zenital gehiegi. Postre itzela. Nire gisako baldosak horrelakoak jasan behar izaten ditugu, tartean ez badira mende hartu zaituzteten pantailak ageri. Gure menua nahiago dut. Nola edo hala, lurrera begiratzera behartzen zaituen nekean murgilduta egonez gero; gudan pentsatu. Gu ere zapaltzen gaituzte eta gure ikus eremua bakarra da. Zuenak, angelu zenitalaz baino gehiago gozatu dezake. Tortikoli saihestezin baten menpe bazaude, ibilbidearen nolakotasunak ulertu eta ikasten gozatzeko izan dadila; eta gozatzeko ikasteko. Askotan harrizkoa izan nahiko zenukeen arren; benetan, ez du merezi. Badira okerrago daudenak. Nik, egun euritsueta ondoko estoldetan pentsatzen dut. Bai, lurreko baldosa izatea ez baita lan xamurra, baina bi egunetatik behin uholdeak jan behar izaten dituen estolda izatea okerragoa da.

AZKENALDIAN INOIZ BAINO GEHIAGO BEGIRATZEN GAITUZUE, MIRETSIKO BAGINTUZUE BEZALA

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne).
GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa.
 Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Trena indartzeko aldarri bateratua

SAKANA TRENAREN ALDEKO LAGUNAK

Pasa den maiatzaren 7an trenbide sektoreko sindikatuek idazki bereziki garrantzitsua aurkeztu zuten Nafarroako Gobernuko erregistroan eta Iruñeko Espainiako Ordezkariordeztan. Egun berean, gauza bera egin zuten Gasteizen eta Burgosen.

Aurreneko aldiz, AHTren aldeko hautua egin izan duten sindikatuek abiadura handiko trena plataforma berri baten beharrean, gaur egungo trenaren ibilbidetik etor dadila eskatu diete Nafarroako eta Madrilgo gobernuari. Honekin batera, Nafarroan bide

bakarreko trenbidea behingoz bikoiztu dadila, tren zerbitzuen maiztasunak handitu daitezela eta azken urteetan galduriko lanpostuak berreskuratzea eta itxitako geratokiak birzabaltzea eskatu dute.

Ikuspegi berri hau gailenduko balitz, Nafarroan erabat azpierzabilia dagoen tren sarea asko indartuko litzateke. AHTren mehatxupean bizi garen eskualdeak tren plataforma berri bat saihestuko genuke eta dagoeneko eraikita dagoen betiko trenbide korridorearen hobekuntza eta bikoizketa bat egingen litzateke zerbitzuak

handituz, lanpostuak berreskuratuz eta ixten joan diren geltoki eta geratokiak irekiera erraztuz.

AHT proiektuak 3.000 milioi euroko aurrekontua dauka geltoki berriak sartu gabe. Betiko tren sarearen hobekuntza eta doitzera aurrekontu horren %20 batekin egin liteke oso denbora gutxian. Mundu mailako larrialdi klimatikoan gauden honetan, azpiegiturak egoera berrietara egokitu eta beti eskasak diren aurrekontuak gizartearendako benetan ezinbestekoak diren zerbitzuak eskaintzera bideratu behar dira.



OBJEKTIBOTIK



nabarrobaskon
@nabarrobaskon

@returntobasque XX. mende erdialdeko argazkia. Baso langileak Sakanan, haritza mozten. Baba kaxula ta ardo zatao ta egun guztia basoan, jo ta fuego.



Jar zaituz
gurekin
harremanetan



GUAIXE
618 882 675



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Lege gordailua:

NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu



Pentsio duinen aldeko manifestaziorako deialdia egin dute.

Pentsioak duinak izan daitezzen

Larunbatean, 18:30ean, Altsasuko Foru plazatik abiatuta. Gaurko eta etorkizuneko pentsio publikoak 'bermatuta' egotea eta 'pentsioen inguruko neurriei buruzko argitasuna eta gardentasuna' aldarrikatuko du Sakanako pentsiodunen mugimenduak

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Pentsio duinak aldarrikatzeko larunbaterako makina bat deialdi egin dira Euskal Herrian eta estatuan. Sakanan ere pentsio duinen aldeko manifesta-

zioak honako leloa izanen du: *Pentsio publiko duinak! Murrizketarik ez! Privatizaziorik ez!* Pentsiodunen mugimenduak salatu duenez, "onartezina da hiru urteko mobilizazioen on-

doren lortutako konkistak arriskuan egotea eta pentsio publikoak, duinak, bidezkoak eta nahikoak bermatzeko pauso irmorik ez egitea".

Sakanako pentsiodunen mugimenduko kideen iritziz, "Toledoko Itunak eta kongresuko bozketak Pentsio Sistema Publikoa bideragarria dela agerian uzten duten arren, pentsioak murrizten ari diren erreformek bere horretan jarraitzen dute eta murrizketa berriei ateak irekitzen zaizkie". Gaineratu dutenez, Pentsio Sistema Publikoa "ez bermatzearen" ondorioz, "pentsioak murriztu eta murrizketa berriak errazten ditu". Aldi berean, lan eta pentsio erreformak ez indargabetzearen ondorio jo dituzte "prekariatatea, desberdintasuna eta pobrezia areagotzea". Horregatik, guztia-
gatik estatuko eta Nafarroako gobernuak eskatuko diete mugimenduaren deialdiarekin

Testigantzak

1. Zer da zuretako pentsio duina?
2. Gaur egun pentsio duinik ba al dago?
3. Zer egin beharko litzateke pentsio duinak izateko?

MILA ALDASORO

1. Bizitzeko behar duguna. Ongi bizi ahal izateko nahikoa diru izatea. Hau da, zure beharrak asetzeko adina diru izatea. Eta gauza gehiagotarako iristen bazaizu, askoz hobea. Baina gutxieneko premiak ongi beteak egon beharko lirateke.
2. Jakina, badaude. Baina asko eta asko ez dira pentsio duinak.
3. Pentsio baxuenak igo beharko lirateke eta, gutxienez, lanbide arteko soldatarekin parekatu beharko lirateke.

SILVER ARREGI

1. Gutxienez, duinki bizitzeko aukera emanen dizun pentsioa, zure bizi premiak aseko dituena.
2. Batzuek badute duinki bizitzeko pentsioa. Baina jende askorendako ez da nahikoa jasotzen duen pentsioa. Batez ere, emakumezkoak dira, zehazki, alargundutako emakumezkoak.
3. Egoera ikusita, borrokatu egin behar da. Etengabe kalean egon behar da. Pentsiorako eskubidea dugula aldarrikatu behar da. Ez da inolako oparria. Bizi guztian lan eginda irabazi dugun eskubide bat da. Ezin dugu onartu soldata txikiak kroniko egitea, lanarekin eta pentsioekin gertatzen ari baita.

Mª CARMEN CANO GONZALEZ

1. Bizi, jan, jantzi, etxea berotu ahal izatea eta, gainera, diru zerbait soberan gelditzea.
2. Oso gutxi, lau pribilegiatuk dituzte.
3. Legeak aldatu beharko lirateke. Gizartean eta politikoki lan handia egin beharko litzateke.

ESTHER LARRION

1. Ezinbestekoa den zerbait da. Bizi ahal izatea, erosi ahal izatea... Hilabete akaberan arazorik ez dezala izan. Gutxi gorabehera, bizi dadila. Ni pentsioaz ezin naiz kexatu, lantegi batean urte pila egin nituen lanean. Eta baduzu. Ondoren lanerako ezintasuna eman zidaten, gero absolutua. Nigatik ez dut eskatzen, gainontzeko jendearengatik eskatzen dut, pentsio duina izan dezaten.
2. Gehienak ez dira pentsio duinak. Eta gero eta gutxiago. Jubilatzen direnek ez dakit zer kobratuko duten. Denda edo ile apaindegia duten autonomoek... Kotizatzeke ere ez zaie iristen. Pentsio eskasa geldituko zaie.
3. Pentsio duinak ematea exijitu behar dugu.

ANA IMAZ

1. Duinki bizitzeko aukera izatea, elikagai bankura joan behar izan gabe, edo gizarte zerbitzuetara jo behar izan gabe. Politiko zintzoak baleude, pentsio duinak leudeke.
2. Bai, lanik egiten ez duenarendako egonen da; baina bizi guztia lanean aritu denarendako, lapurte gabe ibili denarendako, ez.
3. Protesta eta aldarrikapen gehiago egin beharko lirateke. Gobernu bat osatzen den bakoitzean hauteskunde kanpainan hitz emandakoa betetzen ez dutenean ospa egin beharko lukete. Jende askok aldarrikatu beharko luke. Eta hemen (pentsio duinen aldeko kontzentrazioan) lau katu besterik ez gaude.

menduaren "aldarrikapenak bermatzea eta indarrean dauden eta ezarri nahi diren murrizketak berehala indargabetzea". Mugimenduaren deialdiarekin

bat egin dute Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuneko sindikatuek, hau da, ELA, LAB, Steilas, ESK, Etxalde, Hiru, CGT eta CNT.

Eskaerak

- 2011ko eta 2013ko pentsio erreformen eta 2010eko eta 2012ko lan erreformen murrizketak indargabetzea.
- 2021ean iragarritako murrizketa berriak eta Escrivá jaunak sustatutako Pentsio Publikoen Sistemaren privatizazioa gaitzestea.
- Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata 1.200 eurokoa izatea.
- Soldatetan eta pentsioetan dagoen genero arrakalarekin bukatzea. Ezkontidearen pentsioaren %100 alarguntza pentsiorako.
- Erretiro aurreratua, Kongresuan eta Autonomia Erkidegoetako Parlamentuetan onartutako lege besteko proposamenaren arabera, kotizatutako 40 urterekin zigor gabe onartzea.
- Pertsonen bizi baldintza duinak eta osasun zerbitzu publikoak eta zerbitzu sozio sanitarioak izateko duten eskubidea bermatzea, gure osasuna bermatzeko.



Arbizu eta bere dermioko zati baten ikuspegia Etxarri Aranazko Hartzabalidik. ARTXIBOA

Dermioaren sorrera aztergai

Jose Luis Erdozia Mauleonek 'Arbizuko eremuaren finkatzea' izenburuko lana argitaratu du Principe de Viana aldizkariaren 277 zenbakian. Artikuluan Erdoziak azaldu du "Arbizuko eremua edo lurraldea nola finkatzen joan zen"

Eneida C. M. / Alfredo A. I. ARBIZU Sakanako herri gehien modura, Arbizuko "etxe multzoa" noiz sortu zen, "garbi" ez dakite historialariek. "Gutxienez, XII. mendetik Arbizu zegoela bada-kigu". Aranatz gaur egun Ergoienako hiru herriak, Arbizu, Lizarragabengoa eta Etxarri Aranatz daude. Baina XII. mendean 19 herri zeudela gaztigatu du Erdoziak, "beno, 21 arte ere". Illarrazu, (Lakuntza aldera) Maiza, Mundiñano, Ondatz (hirurak Arbizu eta Unanu artean), eta Arozpide. Horiek ziren Arbizu ondoan zeuden herriak, egun toponimo direnak. "Herri txikiena zena inguru guztian aurrerako gelditu da. 1.360an Mundiñanok 27 auzo (etxe, 108 biztanle) zituen eta Arbizuk, berriz, bost auzo (20 biztanle) besterik ez".

Arbizu ez despopulatzearen arrazoia kokalekuan bilatu du

Erdoziak: "garai batean herriak egiten zituzten babestokia kontuan izanda. Behar zuten ura ondoan izatea. Eta toki bat nondik jende 'arraroa' pasatzen zen ikusten zena. Eta ihes egin behar bazuten, basoa ere gertu. Orduko Aranatz erdi erdian zeuden bakarrak Arbizu eta Etxarriko dorrea eta eliza ziren". Erregeren bide zaharra ibarraren erditik pasatzen zen, erromatarren garaietan Bordele eta Astorga lotzen zituen galtzada. Ikerlariaren iritzi, hari loturiko merkataritza ere herria irauteko arrazoi bat litzateke.

BALEZTARIAK 26 BALEZTA TIRO EGIN ZITUEN. GEZIAK ERORI ZIREN TOKIAN JARRI ZIREN MUGARRIAK

Gaztelako Erresumak Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa 1.199an konkistatu zituen eta, ondorioz, Sakana Nafarroako Erresumako muga bihurtu zen. "Beste erresumako jauntxoek erasoek jotzen zituzten honutz aldera. Nafarroako Erregeak hau guztia babesteko beharra ikusi zuen. Eta herri txiki horiek guztiak bildu arazi zituen hainbat tokitan. Etxarri egin zuen hori 1.312an. Saiatu zen Urdiainekin eta Olatzagutiarekin ere gauza bera egiten. Baita Uharte Arakilen ere". Azken horretan herriak batu ziren, aurreko bietan ez. "Horrek azaltzen du herri txiki guzti horiek galtzea eta jendea beste norabait joatea". Ikerlari etxarriarrak gaineratu duenez, "Lakuntzari ere agindu zion Etxarrira joateko. Batzuk joan ziren, baina, azkenerako, lortu zuten han bertan gelditzea eta beste herri txi-

ki batzuk ere bertara batzea. Aldaba, esaterako".

Mugarriztatzea

Erdoziak azaldu duenez, azken lan hau bere XVI. mendeko auzia Aranazen artikulutik sortu da. "nahiz eta XII. mende akaberan Arbizu bazegoela bagenekien, baina zer lurralde zuten oraindik ez zegoen finkatuta. Eta etxarriarrek eta ergoendarrek 1.537an arbizuarrak auzitara eraman zituzten. "Bederatzi arbizuarrak arsaldoa harrapatu zuten Utzabardik Arbizu aldera, gaur egun beraiena den lurrean. Faltzesko artzain baten arsaldoa zen hura. Hark Garde abizeneko bat kontratatua zuen. Arbizuarrak joan ziren esanez hura beraien lurraldea zela eta zergatik zegoen han kanpoko arsaldo bat. Ardiak handik botarazi zizkioten, bi ardi hil eta berari kapusaia kendu zioten".

Garai hartako arbizuarrak lurra beraiena zela esaten zuten eta ergoendarrek eta etxarriarrek ezetz, denena zela. Aranazko Elkartean bi udalherriak gehien goa ziren eta, horregatik, erabaki zuten artzain harri larreen erabilera ematea eta kobratzea. Auzia jarri zuten Etxarri Aranatzek eta Ergoienak eta lau urte beranduago Iruñeko epaileak erabaki zuen hura egin zutenek "hainbeste ordaindu behar zutela, baina Arbizuren eremua zein zen zehaztu behar zela. Eta garai hartan 26 mugarri jarri zituzten". Mugarriak non jarri erabakitze-ko sistema honakoa izan zen: Arbizu erdian baleztaria jarri eta hark alde batera eta bestera 26 balezta tiro egin zituen. Geziak erori ziren tokian jarri ziren mugarriak. "Arbizuarrak esaten zuten tiro bakarra izan zela eta ergoendarrek eta etxarriarrek uste zuten gutxienez hiru izan zirela han. Ez ziren ados jarri mugarriak nola jarri eta Iruñean erabaki zuten Lakuntzako alkatetik eta beste batzuk mugarriak jartzea. Objektibo izateko, edo dena dena".

Informazio hori beste hiru agirietan jasotakoarekin alderatu du oraingoan Erdoziak, "hor-

ARAÑAZ ELKARTEA DESAGERTU ONDOREN ARBIZUK ETA UNANUK LURRAK TRUKATU ZITUZTEN

tik gaur egun arte Arbizuko eremua nola finkatu den azaltzeko". Lurren jabetzarekin "beti egoten ziren arazoak eta mugarriak begiratu edo ikuskatu egiten zituzten noizean behin". 1699, 1827 eta 1872an mugarrien ikuskatzea egin zuten. Etxarriko, Ergoienako eta Arbizuko ordezkariak joaten ziren ikuskatze horietara mugarriak ongi zeuden edo ez begiratzea. "Askotan gertatzen zen mugarri bat desagertuta zegoela ere. Bakarren batek esanen zuen nik azienda hor sartuko dut eta mugarria kentzen badut zeinek daki nirean dagoen edo bestearenena". Mugarriak nola jarri behar ziren eta zein tokitan "oso zehaztuta" zegoela azaldu du Erdoziak.

Ikerlariak Arbizuko eremua zein izanen zen jakiteko taula bat antolatu du. "Bi zutabe ditu. Ezkerrekoan XVI. mendeko auzi horren ondorio izan ziren 26 mugarriak daude. Eskuinekoan jarri ditut beste hiru agirietakoak a, b eta c letrekin berezitate. Normalean bat etortzen dira gehienak. Aldaketa txikitxo horiek jaso ditut, konparaketak egiteko".

XIX. mendeko hirugarren laurdenean Arbizuren dermioa nahikoa zehaztuta zegoen. "Baina gaur egun beste eremu bat du Arbizuk. Eta tartean zer gertatzen da? Arañaz Elkartea 1.878an edo desagertu egin zela. Lurrak banatu zituzten eta hortik lurrak hartu zituen Arbizuk. Esate baterako, iparraldean, Aralar aldera Arbizuk tokia du".

Arañaz Elkarteko lurrak banatu ondoren, Arbizuk Unanurekin lur trukaketa egin zuen 1888an. Arbizuko Udaleko artxiboan guztiaren berri dago jasoa, plano eta guzti. "Unanuk Arbizuri Putterri inguruan eremua eman zion eta Unanuk hartu zuen Ondatz inguruan. Unanurrendako gertu izatea askoz hobeki. Arbizuk Aralar inguruan azientarendako izatea egoki jo zuten. Ados jarri ziren". Lur trukaketa egiterakoan plano egin zuten, artikuluan ageri dena.

Toponimia

Erdoziak azaldu duenez, arbizuarrak agirietan agertzen diren toponimo gehienak ezagutzen dituzte: Aldabe, Zuiarte, Loinaz, Sarrartea, Ilardia, Zabalarte, Ferdadia, Mainzaziurra (egun Maiza eta Maiza gaina ditugu), Arbizuko errota, Errekabartea...

"Baina oraindik ez dut lortu arbuzuar batek esatea gaur egun toponimo hori ezaguna dela". Egizuria leku izenez ari da. "Jimeno Juriok-eta egin zuten toponimia ofizialean agertzen da. Eta 1984an arbuzuar batzuk egin zuten mapan ere agertzen da. Baina gaur egungo arbuzuarrek ez dakitela esaten dute, existituko ez balitz bezala". Arbizu eta Utzubar artean dagoen eremua da, bideberriaren kontra hego aldera dagoena. "Gainontzekoak ezagutzen dituzte". Agirietan jasotako Lakuntzasoroak toponimoa gaur egun ez dago. "Baina hor dago Muganea edo mugadene. Zentzua du, bi herrien arteko muga baita".

Ikerlariak beste taula batean toponimo horiek 1.537tik gaur egun artera leku izen horiek izandako aldaketak jaso ditu. "Oso gutxi aldatu dira, grafia pixka bat. Kontuan izan behar da datuak hartzen zituztenak erdaldunak zirela askotan eta idazten zuten gaztelanian edo garaiko erromantzearen arauen arora".

Planoa ere badakar ikerketak, "zer sistema erabili zuten erakusteko. Markatu dut etxeak non zeuden, gaur egungo herri-gunea. Bederatzi gezi egin nituen alde batera eta bestera. Eta dokumentuan agertzen diren toponimo garrantzitsuenak agertzen dira. Hasten bagara iparraldetik: Loinaz (Arakil ubelde gaineko zubi ingurua), Sarrarte (eskubirago, Lakuntza aldera), Illardi (Lakuntza aldera), Zabalarte eta Ferdadia (Unanu aldera), Errekabitarrea, Aldabea, Egizuri eta, azkenik, Zubiarte (Lizarragabengoa aldera)".

Eraikinak

Artikulu idazteko aztertutako agiriek informazio asko ematen dutela baliatuta, Erdoziak erai-kinen berri ere jaso du, esate baterako: errotak, zubiak, teilategia, San Joan ermita, Arbizuko jaunaren jauregia eta erret-bidea edo Errege bidea. Teilategia ere bazegoen 1.699ko Arbizu hartan. "Teilaria goiena, telleria eta tellerietatik ditugu gaur toponimo bezala". San Joan ermita ere agertzen da agirietan. Baita Arbizuko jaunaren jauregia ere, "gaur egungo Jakaantzia esaten diotena". Errepidea edo errege bidearen berri ere jaso zen agiri haieran. "Askotan errege bide zahar agertzen da; zahar

hori betikoa den bidea dela esan nahi du".

Itsesiak

Mugarri bat jartzeko garaian erreferentziak jarri behar zituzten eta askotan noren soroa zen edo bestelako datuak erabili zituzten. Itsesiak agertzen dira halako batzuetan. "Lakuntzako lehengo futbol zelaia Itsesalde zen. Eta Rafael Carasatorre Vidaurrek ateratzen dituen dokumentu zaharretan ikusi nuen *el itsesi de Utzubar, reserva voyeral*. Itsesia idi hesia da, gaztelaniazko dehesa. Eta hitz hori, nire ustean, euskarazko hitza da: idihesi, dihesi, dehesa egiteko".

Egiarretako Itxasperri toki izenaren esanahia ere horri lotu dio Erdoziak, baita Burundako Isasiarekin. "Isesi izan beharko luke. Halakoei hiperzuzenketa esaten zaie. I edo u bokalak silaba batean baditugu, hurrengo silabako a hizkia e bihurtzen dugu normalean hemen: animatu beharrean animetu. Beste kasu batzuetan kontrakoa egiten da eta zuzendu: idehesi, itxesi, itsasi".

Esan bezala, itsesiak edo aziendaren bazka tokiak edo haiek ez sartzeko (kotoa) agertzen dira agirietan.

Herriaren izenez

Koldo Mitxelenak, "ez oso, garbi baina esaten zuen Arbuzuren esanahia arbi tokia litzatekeela. Niri oso arraro iruditzen zait lurrak ematen duen fruitu horrek izena ematea herri bati". Haren esanahiaren inguruko beste hipotesia du ikerlariak: "Sakanan, eta toki askotan, ar eta ara dauzkagu, esaterako, Arakil. Nik uste dut ara hori ieratit datorrela. Afersia edo lehen bokala galtzearena da oso ohikoa da nafarrran". Beraz, ara hori errota litzateke eta, beraz, Arbizu litzateke: ara+bi+zu edo bi errotakoa. Agiriek bi errotan berri ematen dute. "Bat betiko tokian, Lezizako errekan eta, bestea, berriz, Beldarrain; gaur egun lurperatuta duten erreka. Zentzua izan dezake".

Hipotesia defendatzeko Arruazu herri izenari ere erreparatu dio Erdoziak: "guk sekula ez dugu Arruazu esan. San Joan ermita ere agertzen da agirietan. Ara+bat+zu. Errota bat dagoen tokia litzateke". Bide beretik Arakil ara+gil+le litzateke, "errotak egiten duen ibaia. Zientoka egon dira ibaian. Edo Aralar, ara+larre".

Gobernuak Lanzen liburua berrargitaratu du

Jokin Lanz Betelu historialariaren 'Baskoiak eta bere bizilagunak (K.a. II - K.o. VIII. mendeak)' liburuak Pirinioen mendebaldeko komunitateen arteko harreman diplomatikoetan sakontzen du

ARRUAZU

Atzera ere eskuragarri dago Jokin Lanz Betelu historialari arbuzuarren *Baskoiak eta bere bizilagunak (K.a. II - K.o. VIII. mendeak)* liburuak. Argitalpena hiru kapituluz osatutako liburukiak mendebaldeko Pirinioetako eskualdean bizi ziren komunitateen inguruko azterketa historikoa egiten du, ikuspegi tradizionalatik aldenduz eta K.A. II. mendetik. K.O. VIII. mendera arte. Lehenik eta behin, "Errepublikaren garaian lurraldean izandako gatazkak eta konponbideak" aztertzen dira; ondoren, "Lurraldeak probintzia administrazioarekin eta administrazio inperialarekin dituen harremanak: kudeaketaren garrantzia" jorratzen da, eta, azkenik, "Gatazkak antzinatasun berantiarren testuinguruan" aurkeztzen dira.

Lanz historialariak azaltzen ditu eskualdeko biztanleek beraien interesak atzerriko poten-



Liburuaren azala. UTZITAKAO

tziakin edo erromatarrekin arazoak izaten zituztela eta izaera politiko administratiboko harremanen bidez sortzen ziren arazoei irtenbidea ematen zirela. Atzerriko agintarien aurrean babes-teko erabiltzen zituzten meka-

nismoak, zeregin diplomatikoen esparruan kokatzen zirenak, nagusiki. Izan ere, bideetako bat ordezkariak bidaltzea zen. Praktika diplomatikoak agerian uzten ditu lurraldea, bertan bizi zirenek edo haien buruak ordezkatzeko etapak eta moduak. Lanzen liskar horien dinamikari eta konponbideari buruz egindako azterketak aukera ematen du antzinako eta garai berantiarreko Pirinioen mendebaldeko komunitateen ezagutzari beste ikuspegi batetik heltzeko.

Nafarroako Gobernuaren Kultura Zuzendaritza Nagusiak joan den urtean argitaratu zuen historialari arbuzuarren liburuak eta orain, atzera ere, inprimatu du. 300 aleko tirada egin da, 273 orrialdekoa, eta 15 euroko prezioa du. Argitalpena Historia seriearen parte da, 140 zenbakiarekin, eta Nafarroako Gobernuaren argitalpen dendan, Iruñeako Navas de Tolosa kalean, eta hainbat liburu dendatan eros daiteke.

Goizero 10:00-12:00
EGUN ON SAKANA
Errepikapena 14:00-16:00

08:30-10:00 Nafarroako albisteak
Euskalerrria irratia eskutik
10:00 Prentsa eta eguraldia
10:15 Bateti bestia
10:20 Eguneko albisteak
10:45 Hizketan
11:05 Sarea: Aralar eta
Karrape irratikoekin
11:55 Agurra

107.3 FM
beleixe

Online
guaixe.eus

948 567 074
irratia@beleixe.eus

Aurtengo erronkak eta estrategia plana jomugan

Ostegunean, 17:00etatik 18:45era, Dinabiden Sakanako Sozioekonomia Behatokiaren bilera

SAKANA

Sakanako Sozioekonomia Behatokiak bere kideak estreinako bilduko ditu aurtengoa. Sakanako Mankomunitateak eta Sakanako Garapen Agentziak egin dute bertan parte hartzeko gonbidapena. Bilerak bi helburu nagusi izanen ditu: erronkak eta aurtengo lan plana azaltzea eta hurrengo plan estrategikorako erronkak identifikatzea. Bestalde, bileran izanen da Nafarroako Gobernuko Enpresa politika, Nazioarteko proiektzio eta Lan zuzendari nagusi Izaskun Goñi, foru administrazioaren S3 estrategia eskualdeetara nola egokitu azalduko duena. Bestetik, Mankomunitateko telekomunikazio eta etxebizitza batzordetako buru Gorka Ovejero Ganboak eta Oihana Olaberria Jakak beraien lan taldeen jardunaren berri emanen dute.

Mankomunitateko lehendakari David Oroz Alonsok azaldu duenez, "aurtengoa trantsizio urtea da. Alde batetik 2014-2020 Sakana Estrategia Plana itxiko dugu eta, bestetik, 2021-2027 ziklo berrirako hausnarketari ekinen diogu". Orozek esan duenez, "erronka handiak ditugu aurrean: demografian, kliman, teknologian... Beraz, Sakana erresilienteago, iraunkorrago, dinamikoago eta oparago baterantz joateko, funtsezkoa dugu adimen kolektiboa aktibatzea eta etorkizuneko proiektuak eta ekimenak definitzea". Behatokiaren kideak bileran parte hartzea ezinbestekotzat jotzen du Orozek.

Behatokiak

Udaletxo eta Sakanako Mankomunitateko ordezkariak, alderdi politikoak, sindikatuek, enpresetako ordezkariak, hezkuntzako eragileak, gizarte zerbitzuak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta elkarte sozioekonomikoak osatzen dute.



Behatokiaren aurreko bilera bat.

Zuntz optikoa herri txikietatik gero eta gertuago

Guifinet fundazioa hasi da Arakilgo herri batzuetan zuntza zabaltzen, pixkanaka aurreratuko du

ARAKIL

Gaur egun etxeetan, dendetan, ostalaritzan, enpresetan, administrazioetan eta bestelako erakundeekin egoitza telekomunikazio zerbitzu ona ezinbestekoa da. Zuntz optikoak bermatzen du hori, baina herri txikietan jende gutxi bizitzean telekomunikazio enpresa komertzialek ez dute haietan etekinik ikusten eta eta zuntz optikoko sarerik gabe uzten dituzte. Horri buelta eman eta herri txikietan zuntz optikoa zabaltzeko proiektua landu du Sakanako Garapen Agentziak. Iker Manterola Matxainek jakinarazi duenez, "Guifinet fundazioa hasi da Arakilgo herri batzuetan zuntz optikoa sartzeko. Pixkanaka Arakilgo herri guztiak eta Irañeta egiten dituzte". Horretaz aparte, Irurtzun eta Etxarri Aranatz arteko zuntz optikoko sare nagusi bat egitea aurreikuspen du proiektuak, herrietan dauden balizko premiak ase ahal izateko. Aurreikuspenen arabera lastailerako lanak despedituta egon beharko lukete eta, horrekin batera, eremu horretako telekomunikazio gabeziak konponduta. Aurrekontua 400.000 eurokoa da. 160.000 euro Nafarroako Gobernuak jarriko ditu, Guifinet fundazioak eta udalkek gainerakoak.

Udaletxe pareko kale zatia eraldatuko da

Udalak espaloia eta errepeidea altura berean jarriko ditu, espazioak mugatuz, baina oinezkoen eta ibilgailuen elkarbizitza bulkatuz. Alde Zaharra eta herriaren zabalguena lotzeko espazioa bihurtu nahi da

ALTSASU

Kale hobekuntzak egiten ditu urtero Altsasuko Udalak eta asteazkeneko bilkuran haiei oniritzia eman zien. Lanik nabarmenena Gartzia Ximenez kaleko 90 metroan egingen da, Bakea eta Zubeztia kaleen artean (Garbitoki eraikinetik Koxkako izkinara). Lanen ondorioz, oinezkoen eta ibilgailuen espazioak altuera berean geldituko dira. Bi espazioak bolardoekin bereiziko dira, eta oinezkoentzako pasabideak eta seinale horizontal eta bertikalak jarriko dira. Gainera, ibilgailuak asfalto gainean ibili beharrean galtzada harria imitatzen duen inprimaki koloreztatu batean ibiliko dira. Horrekin batera, eremuaren bi muturretan piboteak jartzeko aukera izanen da, egun berezietan jarri eta trafikoa mozteko. Lanek 155.000 euroko aurrekontua dute.

Moldaketarekin erabili den kaleetako baten zati batean udalak "oinezkoa lehenetsi nahi da ibilgailuaren gainetik". Oraingoz zati hori oinezkoentzako bihurtu gabe, baina bai egokitu, herriko funtsezko gune batean ibilgailuak eta oinezkoak hobeto egon daitezke", azaldu du Javier Ollo Martinez alkateak. Gaineratu duenez, "ingurua hobetzea eta kale zati horretan ibilgailuen zirkulazioa bareagoa edo maila txikiagoa izatea lortzeko, oinezkoek protagonismo handiagoa izango dute, eta, aldi berean, Foru plazaren ingurua erdigunearekin eta merkataritza gunearekin lotzea erreferentzia izanen da espazio hori". Alkateak argitu duenez, "zati horren irudi berriarren helburua da ibilgailuen zirkulazioa murriztea, zirkulazioaren ari diren ibilgailuek abidura txikian zirkulatzeko eta hirigune historikoa Altsasuko erdigunearekin eta merkataritza gunearekin lotzea".



Egokituko den Gartzia Ximenez kaleko zatian altsasuarrak atzo.

"KALE ZATI HORRETAN OINEZKOA LEHENETSI NAHI DA IBILGAILUAREN GAINETIK"

Kaleen berritzeko lanek 164.000 euroko aurrekontua beste bi lanekin osatuko da: Aldautia kaleko zati batean asfalto berritzea (5.000 euro), eta San Juan kaleko espaloia bat konpontzea (4.000 euro).

Erabaki gehiago

Pandemiaren eraginez, eta ostalaritzaren eskaerari erantzunez, Altsasuko Udalak lurzoru publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko ordenantza arautzailearen aldaketa onartu zuen. Aurreantzean ibilgailuen zirkulazioa duten kaleen espaloietan, oinezkoentzako kaleetan eta plazetan eta espazio libreetan jar daitezke terrazak, beti ere, kasu bakoitzaren berezitasunen arabera baimenduko dira, eta mugekin. Bestetik, terrazek eta mahaitxoek ezin izanen dute fatxadaren luzera gaintu, ondoko eraikine-

tako jabeek idatzizko baimena ematen ez badute behintzat.

Udalaren alde zuzeneko baimena jaso beharko dute aldi baterako jarduerak egiten diren behin-behineko instalazio eramangarri edo desmuntagarriak, establezimendu bati lotuta egon ala ez.

Bestalde, Aita Barandiaran adinduen egoitzako elikadura eta garbiketa lanak Eurest Collectividades SM enpresari eman zion Udalak. Eraikin bereko parkeen ariketa fisikoak egiteko makinak jartzea adostu zuen udalak. Bestetik, San Joan ermitaren ondoan komunitate baratzak zeuden eta udalak haiek uzteko jakinarazpena egin du. Mendi Batzordeak hartutako erabakia da. Badira urte batzuk Altsasuko Udalak baratza horiek erabiltzen dituzten pertsonen ez daukala inongo hitzarmen edo erlaziorik. Baratzen kudeaketan udalaren partez kontrolik ez dagoenez, eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen iritzia kontutan izanik, erabaki zen.

Azkenik, udarako kultur programazioa osatzeko 30.000 euro aurreikusi ditu udalak. Musika eta antzezlanak izanen dira.



Plazaolako bide berdean paseatzen. ARTXIBOA



Nazioarteko auzolandegietako parte hartzaileen laguntzaz galtzadaren zatiak agerian gelditu ziren, esaterako, Bakaikun. ARTXIBOA

Bide Berdeen Eguna hartuko du Plazaolako ibilbideak

Larunbatean ospatuko da eta 10:30ean Irurtzungo autokarabana gunea mustuko dute

ARAKIL / IRURTZUN

Garai batean trenbide zirenak gaur egun bide natural bilakatu dituzte, bide berde izena hartzen dute, lurraldean turismo iraunkorragoa sustatzen dutelako. Halako bideek beraien eguna ere badute eta Arakilgo eta Irurtzungo udalak kide diren Plazaola turismo partzuergoak hainbat jarduerekin ospatuko du. Aurten ospakizuna Latasak hartuko du. Hara joateko pasioak eginen dituzte Lekunberritik eta Irurtzungo hilerritik abiatuta. Bideko 6 km-ak egin nahi dituztenek 11:00etan dute hitzordua jarrita, oinez edo bizikletaz joan daiteke. Parte hartzaileen artean bertako produktuen sorta bat zozketatuko dute. Txangolariak abiatu baino ordu erdi lehenago, 10:30ean, Irurtzungo Udalak bide berdearen ertzean egin duen autokarabana eta bizikleta gune berria mustuko da.

Egitaraua

- **10:00** Nordic walking martxa. Hastapenak eta ibilaldia Imozko ibilbidetik. Aurretik izena eman Latasan.
- **11:00** Latasa, Urritza, Latasa ibilbidea (4 km). Haurrendako Lur Kortaren animazioa.
- **11:00-15:00** Artisau azoka. Taloa, gazta, etxeko ogia, ezta, zura...
- **11:30-14:30** Biltegia-ko ohiko bizikleten eta bizikleta elektrikoan alokairua eta probaketa.
- **12:00** Nordic walking martxa, Latasan.
- **13:00** Bicimundo antzezlan, Cia Levelibular eta Dabintxi.

Bernoako galtzadako ibilbidea udarako prest

Seinaleztapeneko azken lanak egin ondoren zabalduko da 64 km dituen GR edo ibilbide luzea. Ibilbide nagusi bat (32 km) eta beste hainbat aldaera izanen ditu (32 km).

ETXARRI / BAKAIKU / ITURMENDI / URDIAIN Piturren, Bernoako galtzadaren egitasmoa aurkeztu zuen Sakanako Garapen Agentziak. Paki Urbitarte Cabrera turismo teknikariak azaldu duenez, "ibilbidea udarako erabilgarri egonen da. Seinaleztatzeko zati bat falta da eta hura despeditzean guztiz erabilgarri izanen da. Orduan ezagutaraziko dugu". Horretarako, besteak beste, www.sakanaeus.com webgunean ibilbidearen atala sortuko dute.

Urbitartek azaldu digunez, "GR 323k 64 km luze ditu. Ibilbide nagusia, zirkulua, bi etapetan banatzen da: Etxarri Aranatz eta Urdiain artekoa basoan barna (18 km) eta Urdiain Etxarri ar-

tekoa Urbasara igota (14). Baina lau herrietatik abiatu daitezke ibiltariak, bide sare bat sortu baita, eta iparrera edo hegoaldera jo dezake oinezkoak". Teknikariak gaineratu duenez, "aukera bat baino gehiago egoteak GR 323 ibilbide luzea edozeinendako egokia da: bai familia txangoak egiteko, bai mendian barna kirola egin nahi duten pertsonendako ere". Teknikariak gaineratu duenez, "ibilbideak iparraldean, GR12rekin bat egiten du. Eta, horrela, Nafarroako GR sarearekin lotuta dago".

Egitasmoaz

Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi eta Urdiaingo udalek

sustatutako proiektua da. Historia, kultura eta natura ondareari balioa eman nahi dion egitasmoa da. Bidea egiten duenak garai bateko mandazainek merkantzien garraioan ibilitako bide berak ibiliko ditu. Haiek Burundako herrietan eraikitako etxeak ikusteko aukera izanen dute ibiltariak. Bide horiek ere, herriarrek, armadek edota lapurrek ere erabili zituzten. Lizarraldea eta kostaldea lotzen zuen bidea zen Bernoako galtzada, auzolanean berreskuratu dena. Bidean zehar oinezkoak interpretazio panelak opatuko ditu, baita postetan QR kodeak ere, web orria bisitatu eta informazio guztia eskuratzeko.

BIL TOKI
TABERNA • JATETKEA

Eguneko menua 11€
Menu berezia 15€

Telefono berria:
948 562 348 · Altsasu

kaxeta
LIBURUDENDA

Ikus ezazu gure liburu katalogoa
kaxeta.net-en

fotokopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

Txalaparta

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

PORTUKO
OKINDEGIA
OKIDENGA

Gosari goxo-goxoak egunero
Etxarri Aranatz

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

Lezizaren ekologia arriskuan dagoela diote

Leziza errekarara egiten diren isurketak etetea eskatzeko manifestazioa egin zen Arbizun igandean. Herriko plazatik enpresaren atera eraman zuten arbuzarrek beraien aldarrikapena

ARBIZU

Arbizun Leziza bizirik! Plataformak errekarara egiten diren isurketak etetea eskatzeko manifestazioa egin zuen Arbizun. Plataformatik azaldu zutenenez, Leziza errekarara egiten diren isurketen aurrean udalak hasi zuen bidez aparte, "herritarren kezka, haserrea eta asperraldia jakinarazi nahi genizkion Agotzaina enpresari". Horretarako, aurretik, sinadura bilketa egin zuten eta Nafarroako Gobernuan eta enpresan bertan aurkeztu zituzten: "412 ahotsa entzun behar dituzte. 412 tanta batera erreka bihurtzen dira". Gaineratu zutenenez, "Tbaiaren ekosistema bera babesteko beharraz aparte, ongi dakigu gure osasuna baliabide natural horren menpe dagoela, gu ere ekosistema garela".

Agotzaina enpresak Ingurumen Baimen Integratua txostena lantzen eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu du eta garagarriaren 29ra arte jendau-



Manifestazioa lantegiaren parean bukatu zen.

rrean egon da; epe horretaraino aurkeztu daitezke alegazioak. Txosten teknikoak enpresak erreka eta ingurumena babesteko hartu behar dituen neurriak agertzen dira. "Udala teknikoarekin egon zen eta balorazioaren

esperoan dago. Irakurketaren arabera asmo onekin daude". Bukatzeko, herritarren lanaren emaitza izan dela esan zuten, "orain ikusi behar dugu nola egiten dugun eta ea neurriak betetzen dituzten".

0-3 duinaren alde, bihar kontzentrazioa Iruñean

Nafarroako 0-3 Plataformak deituta, *Haur eskolen duintasunaren alde* kontzentrazioa egingen da bihar, 12:00etan, Iruñeko autobus geltoki ondoko belardian. Zikloaren eskaintza publikoa eta haren baldintzak, langileenak barne, arautzeko lan mahaia sortzea erabaki zuten erakundeek eta plataformak. Baina "PSNk boikoteatu egin du haren sorrera".



Kanpainaren sustatzaile eta babesleak.

'Isun politikoak' salatzeke deialdia egin dute

Ospa! mugimenduak eta Isunen Aurkako Taldeak deituta, *Isun politikorik ez!* lelopean kontzentrazioa egingen da gaur, 18:30ean, udaletxe parean. Jakinarazi dutenez, "zenbait altsasuarrek isuna jaso dute 2020ko maiatzean Patxi Ruiz preso politikoa gose grebaren inguruko egoerari buruzko esku orriak banatzeagatik". Jakinarazi dutenez, isunak, guztira, 4.800 euro dira. "Aurretik kasu berarekin lotutako isunak" izan direla gogorazi dute, baita guztira 21.000 euro izan direla ere. Bilkura deitzaileek salatu dutenez "eraso berri hau askatasun politiko eta zibilaren urraketen areagotzearen isla besterik ez da".

Merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko, 'Berria Zabalik'

8ra arte eman dezakete izena kanpainan parte hartu nahi duten establezimenduek

SAKANA

Berria egunkariak *Berria Zabalik* kanpaina Sakanan martxan jarriko du. Berria berari "ikusgarritasuna emateko" eta ibarrek "merkataritza txiki eta ostalaritza jarduna biziberritzeko kanpaina da" Berriak aurkeztu duena. Eta bi epetan garatuko da. Lehenik, kanpainan parte hartu nahi duten establezimenduetako arduradunek izena eman beharko dute, dohainik da. Horretarako, www.berria.eus webgunean dagoen galdetegian datuak bete beharko dituzte.

Izena ematen duten establezimendu guztietan garatuko da kanpaina garagartzaroren 15etik 24ra. Kartel batek adieraziko du kanpainan zeinek parte hartzen duen. Dendetan erosi, taberna edo jatetxeetan kontsumitu edo zerbitzuren bat kontratatzen dutenek aldiro txartel batean datuak bete eta 1.000 euroren zozketan parte hartuko dute horren bidez. Berriak garagartzaroren 30ean zozketatuko du dirua. Irabazleak sariko dirua kanpainan parte hartu duten establezimenduetan gastatu beharko du. Gainera, kanpainan parte hartzen duten establezimenduen artean ere saria zozketatuko du Berriak: egunkarian 1.000 euroko balioa duen publizitatea jartzea.

DUELA 25 URTE..



Euskarazko prentzas gogoeta

Donostiako Miramar jauregiak Euskalkom jardunaldiak hartu zituen garagartzaro hasieran. Han bildutako kazetariak euskal prentsari buruzko hausnarketak partekatu zituzten. Emaitzarekin gustura, jardunaldiak udazkenean segida izatea aurreikusi zuten, prentsa eta ikus-entzunezkoen arloak aztergai hartuta. Euskarazko hedabideen enpresa eta kazetaritza arloak zaintzean zuten ikuspegia jarrita.



Nafarroaren burujabetzaren alde

Nafarroa Berriz Altxa ekimenak deituta hainbat sakandar elkartu ziren Altsasun larunbatean. Noaingo batailaren 500. urteurrenaren harira, antolatzaileek Nafarroaren izaera "inkonformista, basati eta independentea" dela aldarrikatu zuten. Aldi berean, garagartzaroren 19an Iruñean egingen den manifestazioan parte hartzea deitu zuten.



Etxarrendarrak Etxetxuri auzunean.

Sareak eta zorua berritzeko garaia gertuago

Kontzejuak bere diru sarrera bakarrenetakoa den herri lurak zortzi urterako eman berri ditu

ETXARREN

Arakilgo hamabi herrietatik dagoeneko hamarrek berrituak dituzte ur hornidura, saneamendu eta euri urak jasotzeko sareak eta zorua. Etxarrego kontzejuko presidente Migel Anjel Irurtia Sariok esan digunez, halako hurrengo lanak Etxarrenen eginen ditu Arakilgo Udalak; "egun-goak 40 urte ditu". Halako lanak egiteko udalak Nafarroako Gobernua errentan dirulaguntza behar izaten dute eta oraingoan ere hala izanen da. Toki Azpiegitura Planera aurkeztuko ditu udalak Etxarrego sareak eta zorua be-

rritzeko lanak. Irurtiak azaldu duenez, "lanek 960.000 euro inguruko aurrekontua lukete eta bi faseetan eginen lirake. Gainera, argiteria publikoko eta telefono kableak lurperatzeko hodiak jarriko lirake. Baita zuntz optikoa sartzekoa ere".

Kontzejuak diru sarrera gutxi ditu. Haietako bat da Nafarroako Gobernuak urtero ematen duena. Eta beste bat herri lurak errentan ematea. Horixe egin berri du eta bi enpresek hartu dute zortzi urterako. Errentamendu horretatik 4.000 euro pasatxo jasoko ditu kontzejuak.


Araztegia egiteko lanak emateko deialdia egin

Igokoko bidearen bazterrean eginen dute, gaur egungo Imhoff putzuaren partzela berean. Dagoen hori mantendu eta azpiegitura berriak eginen dituzte aldamenen. Ur zikinak behar bezala tratatu ondoren Lezizako ugaldara garbi aterako dira

DORRAO

Nilsa enpresa publikoak Dorraoko ur araztegia egiteko lanen deialdia egin du. Haiek egiteko interesa duten enpresek garagarriaren 8ra arteko epea dute beraien eskaintzak egiteko. Nilsako arduradunek kalitate eta prezio erlazio onena eginen duen eskaintzari emanen dizkiote lanak. Lanek 435.639,55 euroko aurrekontua dute (BEZ kanpo), baina kopurua 479.203,5 eurora (BEZ kanpo) pasatzen da luzapen edo aukera guztiak kontua hartuta. Enpresak sei hilabete izanen ditu lanak despeditzeko.

Gaur egun Dorraoko saneamendu sareak etxeetako eta gaztandegi bateko ur zikinak jasotzen ditu. Horiek guztiak Leziza ibaiaren eskuinaldean eta herritik 190 metrora dagoen Imhoff putzu batean bukatzen dute (arazketa sistema bat). Gaztandegiaren isurketak, herriko ohiko isurketekin batera, egungo arazketa sistema mugara eraman dute.



Dorraoko araztegiaren proiektuaren irudikapena. NILSA

Horregatik, Nilsak araztegi berria egitea erabaki du, gaur egun Imhoff putzua dagoen partzela berean eraikiko dena. Enpresatik azaldu dutenez, Imhoff putzu berria eginen dute. Han jasotako urak iragazketa biologikoko sis-

tema batera ponpatuko dituzte. Dagoen Imhoff aprobetxatuko dute bigarren mailako dekantagailu gisa erabiltzeko. Eta handik urak sortuko dituzten bi hezegunetara bideratuko dituzte, Leziza ibaian bukatzeko.

Estalpe proposamena ezagutaraziko dute

Bihar, 17:00etan, udaletxeko ganboikoan izanen da. Estalpea egiteko proiektuarekin batera, arbazuarrek hala eskatuta, arkitektoek herriaren etxea eta ostatu inguru guztia ordenatzeko proposamena azalduko dute

ARRUAZU

Bilgunea, herriarendako, publikoa, inklusibitatea bermatuko duena, adin tarte guztiendako, erabilera anitz har ditzakeena, ostatuari zerbitzu emanen diona, azoka har dezakeena, jolastokia izan daitekeena, kultur ekintzak hartzeko, herriarekin armonia izan dezala, urte guztian baliagarria izanen dena, berdegunea

kontuan hartu, ingurumena babestu, gardena eta irekia, garbia, inguruko hirigintza eta aparkalekuak, bankuak eta iturria, kalerik itxiko ez duena, frontoia libre utziko duena, argia eta instalazioak.

Horiek dira arbazuarrek herriaren estalpe finko bat jartzeari buruz egin zen aurreneko batzarrean, ilbeltzaren 27an, eman

ziztuzten iritzietako batzuk. Orduko hartan kokapen posibleez ere hizketatu ziren eta gehienek herriaren etxearen eta elizaren artean kokatu zuten estalpea, tamaina desberdinekin. Baina udaletxearen eta elkartearen artean kokatu zuenik ere izan zen. Bigarren batzarra estalpea zein materialekin eginen litzatekeen argitzen aritu ziren. Eta,



Kontsultategiko fatxada margotu berria, herriaren etxea, ostatu eta haren karpa.

horrekin batera, udaletxea ostatuaren pareko berdegunea, eliza, frontoia eta elkartea hartuko dituen oinezko eremua

sortzea eta aparkalekuak zehaztea egoki jo zuten. Zehaztuzten horiek guztiak arkitektoendako langaiak izan dira.

Bi ermita, bi urteurren

Irurtzungo Lagun Berriak elkarteko kideak Erga mendiaren gainean dagoen Trinitate ermita zaharberritzen hasi zirela 50 urte bete dira aurten. Eta Urbasa mendi gainean dagoen Santa Marina ermita berreraikitzea erabaki zutela 130 urte bete dira

Alfredo Alvaro Igoa AIZKORBE /
IRURTZUN / BAKAIKU / ITURMENDI

Trinitateari eskainitako bi ermita daude Sakanan, Erga gainean eta Aralarko santutegi ondoan. Gainera, Urbasa gaineko Santa Marina ermitak ere Hirutasun eguneko ospakizunak hartzen ditu. Azken horretara sailduaren irudia herenegun igo zuten, Pazko-laugarren egunarekin.

Trinitate eguna igandean da, baina ez Ergan ezta Urbasan ere ez da ohiko ospakizunik izanen. Pandemia ez zabalteko Irurtzungo, Bakaikuko eta Iturmendiko Udalek erabaki baitute ezer ez antolatzea.

Ergako Trinitatea

Arakildarrek eta irurtzundarrek estimu handia dioten parajea da Erga gaineko ermita eta ermitauaren etxea zena, egun aterpea. Baina, berez, horiek guztiak Aginagarenak dira. Edo zehatzago esanda, elizarenak, bere izenean jarri zituelako eraikinak eta haien arteko plaza. Ermita oinplano angeluzuzena da, 18 metro luze eta 8 metro zabal dituen. Bi isurkiko teiladura eta kanpai-horma ditu. Ermitaren

atea, nahi eta nahiez, iparraldera dago. Bere barruan gordetzen duen irudia metro bateko altueradu, hareharrizkoa da. 1935ean zaharberritu zuten eta Irurtzungo elizan dute. Ermitan dagoen irudia pastazko errepika bat da. Agirietan ermitari buruzko lehen erreferentzia idatziak 1513ko agiri batean jasota daude eta Gulina ibarreko erromeria bati egiten dio aipamena. Baina ermitaren gorabeheren xehetasunak XVII. mendearen bigarren erditik aurrera dira ezagunak. Obrarik nabarmenenak 1773tik aurrera egin ziren. Urte hartan aldare-mahai berria egin zen, Aizkorbe harrobiko marmol gorria da haren basamentua,

harlanduzko harmailaduna. Horrekin batera plazako ate nagusiko atariaren erdia berritu zen. Garai hartako ermitak ez zuen kanpai-hormarik, dorrea baizik. Gainera, hiru aldare, korua, pulpitu eta egurrezko zorua zituen.

1783an, oholtzaren orde, adreileztadura jarri zuten zoruan. Gainera, "etxe berria" babesteko horma bat egin zuten eta harekin lortu zuten jendearendako bidea edo lekua zabaltzea. Ergako ermitak kontu liburua izatea agindu zuten 1721ean baina hura 1754ra arte ez zuten mustuko. 1858an zabalguneari eusten dion beste pareta egin zuten. Haren betelanak Aizkorbe mugarriaren zatia lurperatu zuten eta berriro jarri zuten. Aginagarrak eta aizkorbearrak lekuko zirela, hala jaso zuten 1858ko maiatzaren 21eko aktak. Ermitaua urez hornitzeko bi upel zeuden garai batean. Mando gainean igotako urarekin betetzen zituzten kupel haiek. Baina 1880-81ean ermitauaren etxearen beheko solairuan euri ura biltzen duen ur biltegia eraiki zuten. 1882an tximistorratza jarri zuten.

Ermitauaz

Ermitauaren etxearen eraikuntzak auzi bat sortu zuten Aginaga eta Aizkorbe herrien artean 1686an.

Aizkorbearen etxea eraikitzeak aginagarren etxea eraikitzeak asmoa. Mendi gainera izerditan iristean haize hotzetik gordetzeko zegoen babestokia bere horretan mantentzea nahi zuten aizkorbearek. Aginagarren iritziz, babes hobea emanen lieke etxe berri batek, denendako tokia izanen zuena. Gainera, parajea haien dermioan zegoen. Azkenik, ermitauaren etxea jaso egin zuten.

1780-81ean berregin zuten, zaharrari erantsita. Hura egiteko Latasa eta Erasoko haritzak erabili ziren, auzokoei "refresko" batekin ordaindua (bazkaria?). Eraikuntza lanetan 2.000 adreilu eta 2.300 teila erabili zituzten. Lehen ermitau ezaguna Martin de Saldise da, Errozko Iñigorena etxekoa, Errozekoa. 1685ko agiri batek haren berri ematen du.

AZKEN ZAHARBERRITZEA 1971-1983, 1987-1988 ETA 1994-1997 ARTEAN EGIN ZEN

Ergako Hirutasuneko ermitaua, Etxalekuko San Pedro ad Vincula apaiz ermandadeko begiralea ere bazen. Azken ermitaua Jose Maria Oroquieta izan zen, 1891koa. Aginagako Martxanzena etxeak ermitau kargua hiru belaunaldiz izan zuten, ondoren etxez etxe pasa zen, 1969an hutsik geratu zen arte.

Duela 50 urte

Erga gaineko ermita urte luze utzita egon zen eta XX. mende hasieran egoera penagarrian zegoen. Garai hartan Irurtzunen bazen Lagun Berriak elkartea, egoitza frontoi atzean zuena (hura bota behar zuten, Iratxo sortu zen, 1984an mustu zuten). Lagun Berriak elkartekoak izan ziren Ergako bi eraikinak berritzea erabaki zutenak. 15-16 eta 35 urte arteko 40 bat gizon-emakumezko ziren. 1971an gazte talde hura igandero Ergara igotzen hasi zen, ermita eta aterpetxea konpontzeko. Urteak emanen zituzten horretan. Lanek hiru fase izan zituen.

Irurtzungo Kultura Batzordearen ekimenez zaharberritze lan haiei buruzko bideo dokumentala egin zen joan den urtean. Bertan zaharberritzean parte hartu zuten hainbat irurtzundarrek lanei buruzko xehetasunak eman zituzten. Azaldu zuten, lanen aurreneko fasea 1971 eta 1983 urteen artekoa izan zen.

Hezetasunagatik gaizki zegoen koroa kendu zuten lehenik. Hura kentzean teilatua gaizki zegoela ikusi eta teilatua konpontzea erabaki zuten. Latak kendu eta ordezkatu zituzten, asfalto oiha jarri, gainean 2 cm-ko lodierako porlan kapa eta bukatzeko teilak. Migel Mari Goñiren zuzendaritzan egin zen lehen lan hura eta ondorengo guztiak. Eguraldi txarra zegoen ermita barruko paretetako kisua kendu, harriak agerian utzi eta harriarteak porlanez estali zituzten. Sabai aizuna botatzean teiladurako habe batzuk gaizki zeudela ikusi zuten. Guztiak garbitu eta tratamendua eman behar izan zioten. Teilatuari eusten dioten ermitako lau zutabeetako bat gaizki zegoen eta hura ordezkatu zuten. Gainera, lauak harriz forratu zituzten.

Garai batean ermita eta elize-tako aldareak paretari itsatsiak zeuden. Zaharberritze lanekin aldarea paretatik atera eta jendaurrean jarri zuten. Zorua por-



lanezkoa zen eta baldosa jarri zioten. Edertzeko forjazko lanpara, argimutilak eta inguruko ibarretako armarriak jarri zituzten.

Asto eta traktoreekin hasi ziren materiala igotzen. Murginduetako batek beldar-ibilgailu bat oparitu zien eta hura aurrerapen handia izan zen (harekin istripua izan eta beste bat erosi behar izan zuten). Baina are handiagoa izan zen Aginagako Kontzejuaren bidez jaso zutena: baso aprobe-txamendua saldu eta Ergarako gurdibidea zena pista bihurtu zuen 1972an. Horrek materialak igotzea erraztu zien. Land Roverrarekin jendea igotzen hasi zen eta kamioiren bat ere. Lanerako materiala astez igotzen hasi ziren, asteburuan behar zen guztia izateko, eta gora eta beheerako bidaien zain ez egoteko.

Ermitauaren etxeari errebaso handia eman behar zitzaioela ikusi zuten. Estarbian zegoen euri ura jasotzen zuen ur biltegia berri zuten lehenik, handik urez hornitzen ziren lanak egin ahal izateko. Hura berri zuten eta punpa bidez sukalde urez hornitu zuten. Sukaldean leiho handiak zabaldu zituzten, han argia izateko. Sukalde ekonomikoak eta arraska jarri zituzten ere. Bestalde, eraikineko paretetako kisua kendu, harria atera eta harri arteak porlanez bete zituzten. Teilatua ere konpondu beharra zegoen.

Ermitaren eta egungo aterpearen artean dago plaza. Zaharberritze lanetan ari zirela, hari eusten zion Aginaga aldeko paretaren 25 metro luzek behe- ra egin zuten. Pareta erortzean hango plazako lurra ere erori zen, 2 metroko zabalerarekin geldituz. Lan horri ere ekin zioten. Pareta berria porlanezkoa egin zuten. Pareta jasota materialez bete behar zen zuloa eta inguruko harriak baliatu zituzten. Gabe gelditu ziren ordea, eta Aginagako bideko azken zatian zegoen haitza leher- raraztea eskatu zuten. Baime- na lortu eta, horrela, bidea zabaldu eta zuloa betetzeko materiala lortu zuten. Lehen faseko lanak finantzatzeko gazte haiek papera eta beira jaso eta saldu zuten. Baita txatarra. Gainera, dirulaguntza eskatu zieten kontzeju eta udalei.

08:00etan Irurtzundik abiatzen ziren. 09:00etan lanean hasten ziren 11:00etan gosaltzera geldi-

tzeko. Ondoren, lanean segitzen zuten 15:00etan bazkaltzera. Hasieran ogitartekoak, baina sukalde konpondu eta gero han prestatutakoak jaten zituzten. Platerak garbitzeko lanak zozketa bidez banatzen zituzten. Bazkariak pagatu ondoren, musaldiak eta kantaldiak izaten ziren eta 19:00etan jaisten ziren. Gazte haiendako askatasun gunea zen. Aipatutako lan guztiak 1983an despeditu zituzten. 12 urte igandero Ergara igotzen.

Lanen segida

Lau urteko "atsedena" hartu ondoren, 1987an, ermitauaren etxea eta beste gauza batzuk konpontzeari ekin zioten. Ermitako sakristia kendu zuten, jendea teilatura igo ez zedin. Ermita iluna zenez, leiho handi bat zabaldu zuten argia sartzeko. Horregatik atetik ermita ikus daiteke. Ermitaren odorra edo rafe bat gaizki zegoen eta aldatu egin zen.

Ermitauaren etxeko teilatu zati bat erortzekotan zela zirudien. Hura konpontzen ari zirela plazako sarreraren zegoen porlanezko arkuak eta plazari eusten zion paretaren zati bat erori egin ziren. Lehengo metalezko ateak erabiltzeko asmoa zuten baina bakarren batek eraman zituen. Aizkorben agertu ziren eta berriro igo behar izan zituzten. Sarrera berregin zuten,azienda plazara ez sartzeko, eta forjaz egitura gehitu zioten. 1987 eta 1988 urteak egon ziren lan horiek egiten.

Lanen hirugarren fasea 1994ko lastailetik 1997ra artekoa izan zen. Tximistak ermitako teilatua eta sarrerako pareta jo zituen, ateko arkuak kaltetuz. 1994an Vianako Printzea erakundeak harria eman zien eta arkuak konpontzeko lanak egin zituzten. Gerora beste tximista batek ermitauaren etxea jo zuen eta paretako harri handi bat mugitu zuen. Hura ere konpondu zuten. Aterpean beheko sua egin, paretan ate handi- goa zabaldu, porlanezko zorua jarri zuten. Baita porlanezko mahaiak jarri ere. Aterpearen erabilera araudia Iratxoelkartean egindako bilera batean zehaztu zuten 1995ean.

Elizak bere izenean jarri zituen ermita, ermitauaren etxea eta plaza. Plazari eusten dion Aizkorbe aldeko paretan zuloa sortu zen eta erortzeko arriskua zegoen. Tarte batez gaizki egon zen, elizak konpondu zuen arte.



Urbasako ermita

Antza, erromanikoa zen jatorriz. Gaur egungoak oinplano angeluzuzena du, burualde zuzenez errematatua eta bost zatitan banatuta, kanpoko kontrahormek dioten bezala. Hormak harlanduzkoak dira eta barrura argia ematen duten bi leiho zuzen dituzte, baita atea ere, arku behe- ratu baten bidez irekia. Gaur egun, bi isurkiko teilatu simple batez estalita dago. Barruan, zutabe salomonikoak eta frontoi trianguluarra dituen erretaula bat dauka. Santa Marinaren irudia hartzen du, XVII. mendeko lehen erdiko barrokoa. Ermitak azidulariki aterpea du perpendikularki itsasia. Eta parean andretxe edo aterpe pare bat, Bakaikurena eta Iturmendirena.

Santa Marina ermitaren idatzizko aurreneko erreferentzia XVI. mendekoa da, Burundako Ordenantzetan haren ingurua azidaren bazkaleku gisa izendatzen dute. Nicolas Arbizu Gabirondok argitu duenez, "1595eko agiri batean Santa Maria de la Peña Burunda guztiarena dela jartzen du". Ikerlari iturmendiarren bidez jakin dugu ere etxarriarrak garai batean Santa Marinara ere prozesioan joaten zirela. "Migel Anjel Sagaseta Ariztegik 1530eko agiri batean etxarriarrak Iturmendiko San

Pedro ermitaraino etorri zirela eta mendira begira otoi egin zutelako jaso du". Arbizuk azaldu duenez, Ourenseko Santa Mariña de Aguasantas santutegitik Donejakue bidean zehar zabaldu zen Santa Marinarekiko debozioa eta, horregatik, du ermitak izen hori.

1816an J. X. de Uriz y Lasaga gotzainak egoeraren deskribapena eta ohartarazpena egin zituen: "Urdiain, Iturmendi eta Bakaikuko bizilagunak, gaizki ulertutako debozio baten ondorioz, baseliza dagoen leku markatsura igotzen dira aurreko arratsaldean eta, batzuetan, bertan jende pilak gaua pasatzen du, adin guztietako pertsonak, bi sexuen arteko nahasketarekin, hori onartezina da... eta, beraz, hori edo antzeko gehiegikeriak segituz gero, ermita botatzea aginduko dugu".

Santa Marina ermita Bakaiku, Iturmendi eta Urdiainen esku gelditu zen. Azken karlistadan ermita gotorleku bihurtu zuten eta 1873an karlistek suntsitu egin zuten. Arbizuk azaldu duenez, 1891n, duela 130 urte, ermita berreraikitzea erabaki zuten. Baina Urdiainek lan horietan parte hartu ez zuenez, eskubideak galdu zituen.



BAKAIKUREKIN ETA ITURMENDIREKIN BERRERAIKI EZ ZUENEZ, URDIAIN ESKUBIDERIK GABE

Berreraikuntza

Ermita berriro eraikitzearen inguruko lekukotza eman zuen Jose Gabirondo Lacunzak Iturmendi, herriaren mintzoa aldizkariaren 3. zenbakian, 1993an. Hala kontatu zuen ermitaren berreraikitze prozesua: "gurasoek esaten zuten ermita Urdiain, Iturmendi eta Bakaikurena zen; guztia kareharriz eraikita zegoen. Karlistadakoan haiek okupatu zuten, baina askoz gehiago ziren liberalak inguratzen ari ziren. Orduan, setiatutakoek behera bota eta erabat suntsitu zuten. Gaur egun, oraindik, Santa Marina iturrian harri horiek daude".

Gabirondoren kontakizunak horrela segitzen du: "ondoren iturmendiarrek eta bakaikuarrek ermita berregitea pentsatu zuten eta urdindarrak gaztigatu zituzten. Haien alkateak erantzun zuen uzta txarra izan zutela urte hartan eta hobe zela arto eta gari bagoi bana ekartzea eta herriaren artean banatzea. Erantzun oso humanitarioa, baina aipatu ermitaren parterik gabe".

Bere kontakizuna horrela despeditu zuen Gabirondok: "gaur egun Urdiaingo heldu eta gazte asko igotzen dira eta ongi etorriak dira. Azkenik bakaikuarrek eta iturmendiarrek beheko basotik haritz egur tonak igo zituzten, idi bikote asko uztartuz eta soldata txikiarekin, haien artean nire aita zegoen (Goian Bego); ermita eta gainontzeko estalpeak konpondu zituzten, eta hezetasuna zainduz gero, haritza sekula usteltzen ez den materiala da".



UZTAILAREN 30EAN

UDAKO BEREZIA

ZURE PUBLIZITATEA HEMEN

PUBLI@GUAIXE.EUS | 661 523 245 | 948 564 275 (1 LUZAPENA)



Sonia eta Udane. UTZITAKOIA

PILOTA Nafarroako Master Cup Pilota Txapelketa, abian

Asteburuan abiatuko da Nafarroako Master Cup Pilota Txapelketa, Paleta Gomakoari jarraiki. Mendabian larunbatean 14 partida jokatu dira, eta beste horrenbeste igandean Lodosan. Tartean, nagusien pilota mistoan, Udane Vergara altsasuarrek Agirrerekin osatuko du bikotea, larunbat goizean, Mendabian, Ruiz de Infanterekin eta Orbegozoren kontra aritzeko, eta igande goizean, Lodosan, Salsamendi eta Olatz Ruiz de Larramendi aurkari izateko.

Pilota goxuan, Soniarekin osatuko du bikoa Udane Vergarak. Larunbat arratsaldean ligaxka jokatu dute, Mendabian, Esnal-Ventura eta Oronoz-Goyenetcheren kontra.

PALETA GOMA Irati Igoa Espainiako Trinketeko finalerdietan

Irati Igoa etxarriarrak Uxue Murillorekin osatu du bikotea Espainiako Trinketeko Paleta Gomako Txapelketan. Larunbatean, 9:00etan, Mendillorri finalerdia jokatu dute, Irazustabarrenaren eta Arrietaren kontra.

Bestalde, Nafarroako Euskal Pilota Federazioak "Pilota eta Emakumea" izeneko batzordea sortu du, eta aurkezpen gisa, gaur, ostirala, Labriten emakumezkoen jaialdia antolatuko du, 17:00etatik aurrera. Tartean, Irati Igoak Espinalekin osatuko du bikoa, Murilloren eta Ardanazen kontra paleta goman aritzeko. Nafarroako Federazioan 227 emakume daude federatuta.

Atzelariek hankaz gora jarri dute Buruz Burukoa

PILOTA Zabaleta eta Rezusta txapelketa nagusiko finalerdietara iritsi dira, bidean sekulako nagusitasuna erakutsita. Altuna eta Artola dira finalerdietako favoritoak, baina ez dira batere fio, atzelariek sorpresa ematen jarraitu nahi dutelako

Buruz Burukoan atzelariek zeresana ematen zuten garaia aspaldiko kontuak dira. 2002 urtean Abel Barriolak Buruz Burukoa irabazi zuenetik eta 2003an Patxi Ruizek lortu zuenetik, txapelketa nagusia aurrelarien eskutan egon da. Jokatzeko den materialak eta jokatzeko moduak –airez jokatzek, bereziki–, zerikusi handia izan dute horretan, pilota botera jartzea oso zaila delako. Hori, jakina, handicap handia da atzelariendako. Baina Jose Javier Zabaletak eta Beñat Rezustak egoera irauli eta hankaz gora jarri dute aurrelarien agintea. Izan ere, asteburu honetan jokatu diren finalerdietara iritsi diren lau pilotarietarik bi atzelariak dira, Zabaleta eta Rezusta, hain zuzen ere. Altuna eta Artola aurrelariak izanen dituzte aurrean.

Larunbatean Labritek Rezustaren eta Artolaren arteko finalerdia hartuko du (17:15, ETB1). Iñaki Artola litzateke favoritoa, baina katedrak ez du ezer baztertzen. Izan ere, txapelketa bikaina eginda iritsi da Rezusta finalerdietara. Atzelari bergararrak aitortu duenez, "orain arte egindakoarekin konforme" dago, baina "ez da konformatzen" eta "aukerak dituela" uste du. Baita Artolak ere. Baikokoa lehenengoz sailkatu da Buruz Buruko finalerdietarako, eta gogotsu dago. Beraz, tentsio handiko partida espero da. Asteazkenean Joseba Ezkurdiarekin entrenamendu saio gogorra egin zuen Rezustak, partida behar bezala prestatzeko.

Zabaletak finalean egon nahi du Zabaletaren eta Altunaren arteko finalerdia, aldiz, igandean jokatu da Bilboko Bizkaia pilotalekuan (17:15, ETB1). Altuna da favoritoa. Amezketarra 2018ko Buruz Buruko txapeliduna da, eta joan den urtean Buruz Buruko finalista izan zen; Erik Jakak lapurtu zion bere bigarren



Altunaren eta Zabaletaren arteko lehia handia espero da. ARTXIBOA

buruz buruko txapela litzatekeena. Larunbatean Joseba Ezkurdiari 15 eta 22 irabaztetik iritsi da finalerdietara Altuna, eta itxura oso ona eman zuen. Ezkurdia ere ongi aritu zen, baina badirudi Buruz Burukoarekin madarikazioren bat duela: frontoi osoko txapela da arbizuarrak falta duen bakarra, eta oso garesti du. Finalerdi sakandarririk gabe geratu ginen.

Katedrak Altuna jotzen du favorito, baina Zabaleta begitik galdu gabe. Izan ere, Etxarrengo atzelaria ez da gutxietsi behar, inondik inora. Arakilgoarekin ezin da fio. Buruz buru ere bina bezain handia dela erakusten ari da, Arteaga eta Dario bidean utzi baititu, inolako gupidarik gabe. Motorra berotzen duenean edozertarako gai da Zabaleta, eta Altunak prest egon beharko du.

Zabaleta egungo atzelaririk onenetakoa da, onena ez bada. Izugarritzko jotzea du –larunbatean erreboteraino bidali zituen–, sakez ere min handia egiten du, eta azkarra da. Arin mugitzen da kantzaren alde batetik bestera. Altunak bere erreperitorio guztia prestatu beharko du, behin

finalerdietara iritsita, Zabaletak buruz buruko final handian egon nahi duelako. Partida handia espero da, eta ea Zabaletak sorpresa eman –agian ez litzateke horrenbesteko sorpresa izanen– eta finalera heltzen den.

Irurtzunen ere finalerdiak

Irurtzun Pilota Klubak antolatutako 39. Irurtzuno Pilota Txapelketa azken txanpan sartu da. Atzo hasi eta gaur despedituko dira finalerdiak. Afizionatuen mailako pilotari onenak lehiatzen ari dira txapelketan.

Gaur, ostirala, 18:30etik aurrera eta Irurtzuno Biaizpe pilotalekuan, De la Fuentes eta Azpirozek Landa eta Agirre izango dituzte aurkari, eta Retegi Bik eta Lazkozek Antsoeren eta Gilen kontra jokatu dute. Finalak ekainaren 5ean jokatu dira.

1. MAILA AUTONOMIKOIA

16. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Lagun Artea - Zirauki 2-3

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1 Avance Ezkabarte 41
8 Lagun Artea 13

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN (ATZERATUTAKO PARTIDA)

17:00 Erriberri - Lagun Artea (Erriberri)

Lagun Artea Erriberriren kontra

Lagun Arteak Zirauki hartu zuen igandean Zelai Berrin. Davilak etxeko taldea aurreratu zuen, baina bisitariak buelta eman zioten partidari 1 eta 2 jarri ziren. Davilak bina berdindu zuen, baina falta baten jaurtiketaren ondoren Ziraukik hirugarren gola sartu zuen. Jandro Gastaminzaren mutilek atzeratutako partida jokatu dute igandean, Oliten, Erriberriren kontra. Datorren astean Lagun Arteak Avance Ezkabarte liderra izango du aurkari.

ERREGIONALA GIZONAK

16. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Doneztebe - Altsasu 1-4

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 5. MULTZOA

1 Gazte Berriak 36
4 Altsasu 19

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

17:00 Altsasu - Asdefor (Dantzaleku)

Altsasuk Asdefor hartuko du bihar

Altsasuk Doneztebe hartu zuen aurreko larunbatean Dantzalekun. Gorritxoek lehenbailehen lotu nahi izan zuten partida, eta 26. minuturako Guisadok eta Vergarak Altsasu aurreratu zuten. Doneztebek eutsi zuen, markagailuan hurbildu zen, baina Larak eta Lobok emaitza borobildu zuten. Bihar sailkapenean azkena den Asdefor hartuko du Altsasuk.

IRRIKAKETA Ioseba Fernandezek urrezko beste bi dominak

Asteburuan Espainiako Junior eta Senior Mailako Irrikaketa Txapelketak jokatu ziren Iruñeko Antoniutti Txapelketan. Nafarroak 19 domina lortu zituen, tartean Ioseba Fernandez Fernandez iturmendiarrak lortutakoak. Berrero Ere taldeko sakan-darrak sasoian dagoela berretsi zuen eta 100 m esprintean eta 430 m esprintean gailendu zen.



UTZITAKOA

Aralar Mendikoak pozik

ARETO FUTBOLA Areto futboleko 3. mailako 2020/2021 denboraldia bukatu da. Uhartre Arakilgo Aralar Mendi igoera fasean 5. sailkatu da, eta ez da mailaz igoko. "Igoera fasea sailkatu izana nahikoa saria izan da guretzat. Denboraldi oso ona izan da" azaldu dute. Bestalde, Irurtzungo Xotak 2. faseko 7E azpimultzoan 3. postuan bukatu du liga.

SASKIBALOA CBASK-ek 5 puntuko aldeagatik irabazi beharko luke

Autonomia Arteko 2. Mailako 2. fasean sailkapen gurutzaketako lehen partidari CBASK-Jatormani 66 eta 70 irabazi zion Ardoik. Larunbatean bigarren partida jokatu dute, 19:30ean, Zizurren, eta azken fasea sailkatzeko, partida 5 tanto baino gehiagoko aldearekin irabazi beharko luke CBASK-Jatormaneke. Beraz, oraindik zabalik dago kanporaketa.

"Nahiko partida berdindua izan zen; batzuetan beraiek aurretik joan ziren, baina gu ere batzuetan aurretik jarri ginen. Azkenean euren irabazi eta lau puntuko errenta dute, baina bueltako partidarako alde hori ez da ezer. Orain bigarren partida geratzen zaigu, etxetik kanpo. 5 puntugatik irabazten badugu finalerdietara sailkatuko ginateke. Beraz, irabaztea espero dugu, azken fasea jokatu ahal izateko" azaldu du Iosu Mendiola entrenatzaileak.



@DANIEL_CEAR

Izpegi Garikoitz Floresendako

AUTOMOBILISMOA Larunbatean hasi zen Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketa, Erratzuko III. Izpegi Igoerarekin. Garikoitz Flores lakuntzarra (Talex M3) gailendu zen (3:22.932), Arkaitz Ordokiri (Silver Car) ehunetako batzuk aterata (3:23.417). Eneriz Besga olaztiarra (Saxo VTS) 18. sailkatu zen (4:02), 2. kategorian lehena. Flores Fitoko Igoeran arizetik zetorren.

"Espainiako Txapelketetan lan ona egin ahal dudala uste dut"

HEGOI LAKUNTZA ZELAIA TRIATLETA

TRITATLOIA Saltokiko triatleta altsasuarrak jubenilen mailako Aritzalekuko Triatloia irabazi zuen larunbatean eta Espainiako Txapelketarako prestatzen ari da buru belarri

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Larunbatean Aritzalekuko Triatloia jokatu zen, sprint distantzian, distantzia olinpikoan eta Nafarroako Kirol Jolasen kadeeten eta jubenilen mailan. Proba, aldi berean, Nafarroako Distantzia Olinpikoko Txapelketa zen. Hegoi Lakuntza Zelaia altsasuarrak (Saltoki) jubenilen mailako proba irabazi zuen, lasterketa oso gorabeheratsuan. **Aritzalekuko Triatloia proba ezagun eta garrantzitsua da, eta irabaztea handia da. Zorionak!**

Eskerrik asko! Bai, Aritzalekuko Triatloiak izena du. Nafarroan denboraldiko lehen triatloi lasterketa izaten da eta nik uste dut Nafarroako triatloi proba garrantzitsuena dela. **Sakana Triatloi Taldean hasi zinen trebatzen baina Saltoki Trikideak taldera pasa zinen. Zergatik?**

Orain dela 2 urte joan nintzen Saltoki Trikideak taldera. Euren taldeko kide izateko eskaintza egin zidaten. Niretako sekulako aukera zen, Saltoki estatu mailan talde oso ona delako, eta Espainiako Txapelketetan aritu ahal izateko eta proba garrantzitsuagoetan probatzeko aukera oso ona iruditzen zitzaidan. Hau da, Saltokin egotean aukera gehiago izango nituela proba handietan egoteko. Eta horregatik hasi nintzen bertan. Saltokira joan nintzen lehen urtean, lehen urteko kadetea nintzen, baina FETRI-k (Espainiako Triatloi Fe-

derazioa) kategorien formatua aldatu zuen, eta denboraldi honetan, lehen urteko jubenila naiz. **Saltokik Alcobendasen jokatu du Espainiako Duatloi Txapelketa irabazi zuen maiatza hasieran. Zuk ere bertan parte hartu zenuen, Talentuen Liga izeneko txapelketa, eta zure taldea, Saltoki, erlojupekoan bigarren sailkatu zen.**

Bai, egia esan, oso ongi ibili ginen Alcobendasen, eta erlojupekoan bigarrenak izan ginen. Esan bezala, Saltoki estatu mailan talde garrantzitsua da. Klubean estatuko beste tokietako triatletak egiten ditu, eta talde oso polita eta ona egin dute, estatu mailan bikaina. Hortik datoz emaitzak. **Altsasuko Duatloian juniorren mailan 2. izan ziren, Arbizuko Duatloian juniorretan 5. eta triatloian lortu duzu junior mailako lehen garai-pena, Aritzalekuko Triatloian. Irabaztea espero zenuen?**

Ez, ez nuen espero. Jendeak asko entrenatu zuen, igeriketa eta bizikleta gehienbat, eta nik ez nuen espero halako marka egitea. Oso pozik sentitu nintzen irabazterakoan. Gustura ospatu nuen.

"ARITZALEKUKO TRIATLOIAN HALAKO MARKA EGITEA EZ NUEN ESPERO. OSO POZIK NAGO"

Triatleta guztiak aitortzen duzue hiru kirolen artean atalen bat doakizuela hobe bestea baino. Zure kasuan non moldatzen zara hobe? Une honetan hobekien igeriketan nabil, eta okerrren korrika. Korrikan momentu honetan pixka bat ahul nabil. Entrenatzen dut, baina agian gehiago entrenatu beharko nuke.

Duatloia edo triatloia nahiago? Duatloiak korrika eta bizikleta hartzen ditu, eta egun igeriketan ongi nabilenez, une honetan triatloiak ditut nahiago.

Ikasturte bukaerako azterketetan murgilduta egonen zara eta normala izango da tarte gehiegirik ezin hartzea behar bezala entrenatzeko. DBH4. mailan nago, azken azterketak dira eta une honetan zaila da ongi entrenatu ahal izatea. Baina, beno, entrenamenduekin aurrera egin behar da. Deskonektatzea ere garrantzitsua da. Normalean asteburuetan lagunekin ateratzen naiz, lasterketen ondoren, aste gogorretatik deskonektatzeko eta lasai egoteko. **Aritzalekuko Triatloian jubenilen mailan zein distantziak zenituzten?** Igeriketan 400 m, bizikletan 12 km eta korrikan 2,5 km. Igeriketa azkarren egin nuen partziala izan zen.

Igeriketan aurrea hartu eta alde hori bukaeraraino mantendu zenuen? Ez. Igeriketan lehena izan nintzen, baina bizikletarako aldaketan arazoa izan nuen, eta bi postu eta 15 segundo galdu nituen.



Hegoi Lakuntza Zelaia, Arbizuko Duetloian bizikleta tarteari ekiteko prest. Altsasuarrak garaipen garrantzitsua lortu zuen larunbatean Aritzalekun.

Bizikletako aldaketa bi modutan egin dezakezue, ezta?

Bai. Modu bat da zapatilak jantzea, eta bizikleta helduta irteerako marraraino korrika joatea eta marratik aurrera bizikletan igotzea. Eta beste modua da ni egiten saiatu nintzena. Hau da, bizikletako zapatilak ointokian edo kalan lotuta izatea, goma batzuekin, eta kasu honetan hasieratik prest zaude bizikletara igotzeko. Baina nik oina gaizki sartu nuen zapatiletan, goma askatu zen eta zapatila erori zen. Horregatik, bizikletatik jaitsi behar izan nintzen, lurrean zapatilak jantzi eta bizikleta helduta irteerako marraraino korrika joan.

Hortaz, hortik aurrera egoerari buelta eman behar izan zenion.

Bai. Bizikletako zatian aurrekoak harrapatzea lortu nuen, eta gero ihes egin nuen. Korrikako azken atalera aurretik iritsi nintzen, baina atzekoak harrapatu eta gainditu ninduten. Izan ere, kadeteak ere oso indartsu dabilta. Atletismoan ibiltzen dira, eta korrikan bikain aritzen dira. Baina gainditu nindutela ikusita, azken txanpa horretan topera aritu nintzen, lehertzer, hiltzeraino. Korrikako tartean ibilbi-

"SALTOKIK BERE TALDEAN ARITZEKO ESKAINTZA EGIN ZIDAN ETA BI URTE DARAMATZAT BERTAN"

dea oso gorabeheratsua zen, eta maldan behera besteek oinkada laburtzen zutelak konturatu nintzen. Horrela, maldan beherakoan oinkadak luzatu nituen eta hor lortu nuen harrapatzea eta lasterketa irabaztea.

Horren lehiatua izatean, ikusleendako oso lasterketa polita izan zen.

Bai. Halako lasterketak politagoak dira, proba hasieratik aurrean kokatu eta lasterketa gutzia aurretik egitearekin alderatuta. Eta garaipenak zapo hobea du. **Aritzalekun maila olinpikoan ibili zirenak gertutik ikusita, zure burua halako proba luzeetan ikusten duzu?** Baietz uste dut, baina aurrerago, hemendik urte batzuetara. Une honetan supersprint eta sprint distantziatarako ari naiz entrenatzen. Horiek dira orain nire distantziak, Espainiako Txapelketa distantzia horietan prestatzen ari naiz.

Espainiako Txapelketak aipatu dituzu. Hori da aurtengo zure helburu nagusia?

Bai. Ekainaren bukaeran Espainiako Triatloi Txapelketak jokatuko dira Pontevedran, eta nik uste dut lan ona egin ahal dudala, jubenilen lehen urtean, beti ere. Top-30 edo halako zerbait egitea espero dut. Pontevedrarako prestatzen ari naiz, baina aurretik, ekaina hasieran, aste pare bat barru, Portugaleten Europako Txapelketetarako sailkagarria den proba jokatuko da, eta bertan ariko naiz. 500 triatletak hartuko dute parte, estatuko triatleta askok. Zaila izango

da, Europara bakarrik klasifikatzen delako. baina gutxienez ilusioa hor dago.

Aurten hasi da, nolabait, zure aire-ratzea. Triatloirako zure berezko dohainez gain, uste duzu Saltoki bezalako talde indartsu batean egoteak eragina izan duela?

Laguntzen du. Saltokikoek prestatzen dizkirate entrenamenduak, dietista dute eta beharrezko guttia. Ganean ditut, taldea familia bat bezalako da. Entrenamendu gehienak Iruñean izaten dira, ordu asko ematen ditut han, eta ezin dudanean Zelandian eta Dantzalekun aritzen naiz. Saltokin bi urte daramatzat eta badakit nola entrenatzen dugun eta zein erritmotan. Urte guztian testak egiten ditugu, eta test horiekin badakizu zein erritmotan egin lasterketa hau, zeinetan bestea... **Triatloia gustukoa izateaz gain, zuretako oso garrantzitsua dela argi dago, beste jarrera bat eskatzen dizulako, sakrifizio handia: entrenamenduak, testak...**

Azkenean, eskatzen dizuna entrenatzeko konpromisoa da, Espainiako Txapelketetara joateko maila bat behar duzulako. Entrenamenduak horretarako daude eginak. Ea txapelketak zer moduz ateratzen diren.

"SALTOKIN MAILA HONETAN ARITZEAK ENTRENATZEKO KONPROMISOA ESKATZEN DU"

Sakandarrak Aritzalekun

Distantzia Olinpikoa Gizonak:

1.Urko Herran	2:09:41
7.Mikel Astiz	2:18:26
41.Felix Benjumea	2:29:35
64.Anton Zelaia	2:35:13
124.Juan Luis Maiza	2:51:09

-Emakumeak:

1.Maddi Marquet	2:31:12
-----------------	---------

-Erreleboak:

1.Txomin eta Pello Osoro	2:09:12
10.Mikel Mazkieran eta Adrian Claver	2:39:22

Sprint distantzia Gizonak

1.Ander Ganzabal	1:05:07
40.Sergio Garcia Eulate	1:14:44
46.Iñaki Alvaro	1:15:52
54.Xabier Borrega	1:17:02
56.Javier Borrega	1:17:32
94.Mikel Lakuntza	1:22:55

-Emakumeak

1.Claudia Martinez	1:17:22
--------------------	---------

Nafar Kirol Jolasak -Kadeteak gizonak

1.Aier Mendioroz	45:00
4.Alain Andueza (Sakana)	50:26

-Kadeteak emakumeak

1.Ane Arrosagarai	53:03
-------------------	-------

-Juniorrak gizonak

1.Hegoi Lakuntza	46:37
------------------	-------

-Juniorrak neskek

1.Jennifer Lopez-Roso	50:14
-----------------------	-------

*Saillapenean ez da jaioterria aipatzen eta gerta daiteke sakandarren bat ez agertzea



Mikel Astiz, gorenean. UTZITAKOA

Mikel Astiz, Nafarroako txapelduna

Aritzalekuko Triatloiko Distantzia Olinpikoan (1.500 m igeri, 41 km bizikleta eta 10 km korrika) Lea la Blancako Urko Herran izan zen azkarrena (2:09:41). Mikel Astiz Erro (Donibane Onhaus) oso ongi ibili zen eta 7. sailkatu zen (2:18:26), lehen nafarra.

Mikel Astizek Nafarroako podiumean egotea espero zuen, "baina Nafarroako Txapelketa irabaztea, egia esan, ez nuen espero" azaldu du. Bizikletako zatian aritu zen hobekien. "Ur irekitan martxa hartzea kostatzen zait, eta oso gaizki ibili nintzen Allotzen. Baina bizikletan oso ongi aritu nintzen eta postu asko egin nituen gora. Korrika zatian ere erritmo oso altua mantendu nuen. Eta horri esker lortu nuen Nafarroako Txapelduna izatea" gaineratu du. Ihabarkoa "oso pozik" dago, baina pena txikia du. "Erreka Gil Rey nire lagun eta prestatzailea 4. izan zen Nafarroako Txapelketan, eta pena eman zidan bera podiumera igo ez izana. Errekeri eskerrikeri beroenak eman nahi dizkiot, beraren lanagatik nabilelako horren ongi aurtengo denboraldian" nabarmendu du Mikel Astizek.

Sprint Distantzian (750 m - 20 km-5 km) Sergio Garcia de Eulate izan zen lehen sakandarra, 40. postuan.

Xota, kopari begira

ARETO FUTBOLA Xotak emakumezkoen senior mailako kopa lortzeko aukera du, baina horretarako gaur Tafaren kontrako partida irabazi beharko luke eta Mutilberaren emaitzen zain egon. Yolanda Martil kapitainak "taldean sekulako giroa" dutela dio

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Une gozoa bizitzen ari da emakumezkoen senior mailako Xota taldea. Talde irurtzundarrak Nafarroako senior mailako emakumezkoen kopa lortzeko aukerak ditu. Horretarako, Xotak gaur, ostirala, 20:30ean Tafaren kontra Tafallan jokatu duen partida irabazi beharko luke, eta Mutilberak jokatzeko dituen bi partiden emaitzak itxaron. Yolanda Martil Fernandez kapitainak azaldu duenez, "oso polita litzateke kopa irabaztea, baina zaila izango da. Aurten ez dugu Tafaren kontra jokatu, ligan bi multzo ezberdinetan geundelako, eta ez dakigu nolako partida dugun aurretik. Ustez lorgarria da, baina partida jokatu beharra dago. Bestalde, Mutilberak bi partida nahiko erraz ditu aurretik eta ez dut uste galduko dituenik. Dena den, partidak jokatu arte hemen ez dago ezer esaterik" aitortu du irurtzundarrak.

Kapitain martildarrak

Yolanda Martilen bizitza areto futbolari lotuta dago, baina bere hasierak karatean izan ziren, bere aitak, Luis Martilek, lau hamarkada luze baitaramatza

Irurtzungo Shotokan karate eskola gidatzen. Joan den urtean, 68 urterekin, karateko 6. Dam maila lortu zuen, gerriko txuria eta gorria, eta karate arbitroa da. "Txikia nintzenean aitak karate txapelketa guztietara eramaten ninduen. Oso oroitzapen politak ditut" dio Yolandak. Baina kimonoa baloiagatik aldatu zuen, areto futbolak guztiz harrrapatu baitzuen. Baita egun Osasuna Magnako kapitain den bere anaia Roberto Martil ere.

Kuriosoa da: bi anai arrebak Xotaren talde nagusietako kapitainak dira. Martildarren etxean asko hitz egiten omen zen areto futbolaz. "Partidak zer moduz, egutegia... areto futbolaz aritzen ginen, baina azkenaldian ez (kar, kar...). Nik hiru urteko alaba dut eta Robertok urte eta erdikoa, eta elkartzen garenean denbora txikiendako izaten da. Baina aitak gurekin egiten zuena egiten dugu guk gure alabekin: Robertoren eta nire partida guztietara eramaten ditugu" gaineratu du.

Sorrera

Egunge senior mailako Xotak sei urte ditu. Aurretik senior mailako taldeak egon izan dira

Irurtzunen, baina tarteka emakumezkoen talde nagusia desgertzen zen. "Ni senior mailako Xotan hasi nintzen, duela 20 urte baino gehiago, baina tarteka taldea ez zen ateratzen. Kategorria txikiko emakumeen taldeak beti egon izan dira, baina helduena boladaka" azaldu du kapitainak.

Xotan jokalaria hasi, eta Leandro Fernandez entrenatzailearekin Orvina taldera egin zuen salto Yolanda Martilek. 2. mailan eta 1. mailan jokatu zuen Orvina-rekin, talde teknikoan ere egon zen, eta gero Subizara joan zen eta 4 urte eman zituen bertan, jokalaria. "Duela sei urte hainbat faktorek bat egin zuten senior mailako Xota taldea sortzeko. Batetik, haurrak kategoriaz igotzen ziren, baina ez zegoen jende nahikorik senior mailako taldea sortzeko, eta, bestetik, kanpoko taldeetan genbiltzan bizpahiru jokalarik Xotara, etxera bueltatzea erabaki genuen. Orduan, guztien artean senior mailako Xota taldea sortu genuen; aurtengoa gure 5. denboraldia da" kontatu digu Yolandak.

Roberto eta Iñaki entrenatzaileak

Taldea sortzea erabaki zuten, baina ez zuten entrenatzailearik. "Anaiari proposatzeko esaten zidaten, baina niri ez zidala kasurik egingo uste nuen (kar, kar...); azkenean, batzuen eta besteen artean saltsan sartu genituen eta Roberto eta Iñaki Morillas ditugu entrenatzaile hasieratik" aipatu du Yolandak. Roberto Martil berak aitortu izan du oso gustura dabilela nesken taldea entrenatzen. "Entrenamenduak ongi prestatuta datoz biak, eta batzuetan Robertok talde nagusian egiten dituzten entrenamendu batzuk proposa-



Xota talde nagusiko jokalariek, Roberto Martil eta Iñaki Morillas entrenatzaileekin, aurreko astelehen

tzen dizkigu. Oso gustura gaude. Beraiek kuadrilla berekoak dira, eta esango nuke ere gogotsu daudela" gaineratu du.

Kapitainak entrenatzaileen konpromisoa eskertu nahi du. "Hainbat taldetan ez dute entrenatzailearik; norbait egoteko gurasuren bat jartzen da, baina euren kabuz entrenatzen dute. Eta hori asko nabaritzen da. Ez da berdina areto futbolaz dakien norbaitekin entrenatzea eta ikastea, edo formazioz gabe kanxara ateratzea; halakoetan ohitura txarrak hartzen dira eta ez dago talde egituraturik. Guk Roberto eta Iñaki entrenatzaile izatearen luxua eta pribilegioa dugu. Beraiek euren lana, egitekoak, familiak... dituzte, eta guztia albo batera uzten dute gu entrenatu ahal izateko. Gurea konpromisoa duen taldea da eta euren ere gurekin konpromisoa dute" nabarmendu du Yolandak.

"JOKALARIK SEKULAKO KONPROMISOA DUGU BI TALDEKIN" YOLANDA MARTIL

Adin ezberdineko talde polita

Xotan sekulako giroa dutela nabarmena da. "Adin ezberdineta-ko taldea gara. Gazteenek 13-15 urte dituzte, gero 16 eta 17 urteko jendea dago, eta hortik aurrera gu, beteranoenak. Talde oso polita osatzen dugu. Guk esperientzia eskaintzen dugu, eta gazteenek ilusio eta txispa hori. Ibilbide luzea egin dut areto futboleant, baina hau ez nuke ezeregatik aldatuko. Sekulako giroa dugu taldean; kafea hartzera geratzen gara, entrenamenduetara oso gustura goaz, gero zerbait hartzen dugu... Ligarik ez irabaztea ez zait axola; guztiaren gaineratik dugun taldea eta giroa jartzen dut balorean. Galtzen dugula? Akatsetatik ikasi, egoerari buelta eman eta altxatzen gara. Pozik goaz entrenatzera, eta nahiz eta galdu, hobetzen saiatzen gara, talde honekiko konpromiso handia dugu" argi utzi du Yolandak.

Bigarren taldea

Emakumezkoen senior mailan bigarren taldea sortu du aurten Xotak, Xota B taldea. "Xota B-koak errealitatean jubencilak dira; euren kategoria litzatekeena



Roberto eta Yolanda Martil, Luis aitaren alboan. UNAI BEROIZ (DIARIO DE NOTICIAS).



buruan. Behean, ezkerrean, Yolanda Martil Fernandez kapitaina. UTZITAKOIA

baino gorago jokatzeko ari dira. Pandemia zela eta, senior maila otsailean hasi zen, baina hasieran ez genekien junior mailako liga jokatzeko zenik. Horregatik senior mailan bigarren taldea sortzea erabaki zen, gazteenen taldeak jokatzeko aukera izan zezan. Apustu handia izan zen, Xota talde nagusian 9-10 jokalarik gaudelako eta Xota B-n beste horrenbeste, plantilla nahiko justuak, egia esan. Ildo honetan, bi taldeek hartu duten konpromisoa handia da; ezin duzu huts egin, bestela zure taldea dagoena baino hankamotzago utziko duzulako. Zu ez bazoaz, zure taldea eta zure taldekideak kaltetuko dituzu, errotazioak egoteko jokalarik gutxiago egongo direlako. Argi genuen jokatzeko nahi genuela, eta horren alde egin genuen. Guztiok gure gain hartu dugu ardura eta konpromiso hori eta taldearekiko lotura handiagoa da" nabarmendu du Yolanda.

Xotan "landu beharreko lehen-gai asko" dagoela uste du Yolanda Martilek. "Xota klubak harrobietako beheko kategorietan, bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere, beharrezko bi-tartekoak jartzen ditu, tartean

neska-mutikoei txikitatik ongi jokatzeko irakatsiko dien entrenatzaileak bermatzea. Lehen aipatu bezala, hori oso garrantzitsua da. Xotan areto futbolaz asko dakiten entrenatzaileak daude, eta asko nabaritzen da, behetik datozen jokalariek trebatuta iristen direlako goiko kategorietara. Nabaritzen da elkarrekin aritu izan direla, taldea direla. Soilik goiko kategorietako areto futbol biziago hori, erritmo altuago hori barneratzea da falta zaiena" dio.

Emakumezkoena, gora

Yolanda Martilek uste du bera hasi zenetik emakumezkoen areto futbolak gora egin duela, baina, jakina, oraindik egiteko asko dagoela. "Ni txikia nintzela areto futboleko aritzeko ez zegoen nesken talderik; mutilekin aritzen ginen. Iruñean emakumezkoen areto futbol harrobia

"GUZTIAREN GAINETIK DUGUN TALDEA ETA GIRO BIKAINA JARTZEN DUT BALOREAN" YOLANDA MARTIL

zuten klub gutxi zeuden. Gaur egun, geroz eta klub gehiagok dute emakumezkoen harrobia. Eta hori izugarri nabaritzen da, txikitatik elkarrekin aritu izan diren nesken taldeak direlako, talde egituratuak. Diferentzia handia da" dio.

Senior mailako kopa

Emakumezkoen senior mailako ligako 1. fasea bukatu eta gero -Xota 4. sailkatu zen eta Xota B 6.-, Emakumezkoen senior mailako kopan jokatzeari ekin zioten bi talde irurtzundarrek. Guztira 5 jardunaldi dira eta azkena asteburuan erabakiko da. Momentuz Xota da lider, baina Mutilberak partida bat gutxiago du eta, hortaz, txapelketa zabal zabalik dago. Partida guztiak "azkena balira bezala, irabazteko" prestatzen dituztela aipatu digu Yolanda, eta alde horretatik berdina ari direla, baina "zerbait jokoan dagoenaren txispahori" sumatzen dela. Gaur, ostirala Tafaren kontra ahalik eta hobekien aritu nahi dute. "Partida iristeko gogotsu gaude. Ea irabaztea lortzen dugun, eta beste aldetik, zortea alde dugun. Hala ere, gertatzen dena gertatuta, ez da mundua bukatuko" dio.

Asteburuan bukatuko da denboraldia. Arraroa izan da, ikusleek hutsuneengatik bereziki. "Iruztzun herri txikia izanda, eta kiroldegian partidak daudela jakitun, jende asko joaten da bertara. Lehendabiziko haurren partida, gero neskena... goiza han pasatzen duzu. Herriko giroa, badakizu. Baina pandemiagatik aforoa murrizketak egon dira, eta tarte batean jokalarik bakoitzagatik soilik pertsona bakarra egoten uzten zuten. Eta harmailak horren huts ikustea tristea izan da. Ea egoera normaltzen den" espero du kapitainak.

Normalean uztailea aldera hasten dira denboraldi berria prestatzen, taldeak egituratzeari begira zein asmo dauden aztertzeke. "Orduan ikusiko dugu ea datorren denboraldian emakumezkoen seniorretan bi talderekin jarraituko dugun edo talde bakarrarekin, baina atzetik harrobia izanda, borrokatzen jarraituko dugu, hori ziur (kar, kar...). Ideialena bi taldeak ateratzea litzateke, gazteenek aurten asko ikasi dutelako. Denboraldia hasi zenetik orain arte, asko nabaritzen zaie; izugarri hobetu dute" nabarmendu du kapitainak.

Bihotza Osasuna Magnarekin

Emakumezkoen Xotako kapitaina izateaz gain, gizonezkoen 1. Mailako Osasuna Magna Xotako zalea da Yolanda, eta Anaitasunara joaten da anaia eta Imanol Arregiren taldea animatzera. 1. mailari eusteko borrokan murgildua dago talde berdea, eta Yolanda uste du helburua lortuko dela. "Xota da; ziur egoerari buelta ematen diotela" dio.

Xota klubak Iruztzunen erreferente izaten jarraitzen du. "Iruztzunen nor ez da pasa Xotatik? Gehienak aritu izan gara areto futboleko, txikitatik Xota bizi eta barneratu dugu. Gogoan dut txikia nintzela eta Xotak Iruztzunia jokatzeko zuenean kiroldegia topera betetzen zela, banderak, pankartak, bonboak, Xotako peña... sekulakoa zen, herriko giroa zen, guztiz. Baina taldea 1. mailara igo zen eta Iruñera lekualdatu behar izan zen. Iruñeko saltoa eman behar izan zuten, positiboak izan zena, baina bidean, nolabait etxeko aurreko giro hori aldatu zen. Iruztzundik jende asko doa Iruñera Xota ikustera, baina beste mota bateko zaletasuna da, ez hain herritarra" deritza Yolanda.

Vilariñok eta Igoak asko dute jokoan

Maitane Vilariño Mendinueta eta Irati Igoa Sesma futbol jokalarik sakandarrek ez dute liga bukaera lasaierik izango. Euren bi taldeek asko dute jokoan asteburu honetan: Vilariñoren Osasunak 1. mailara igotzea, eta Igoaren Mulierrek Espainiako 1. Nazional Mailari eustea.

Osasuna mailaz igo ahal izateko, igandean 12:00etan Santanderren Racing taldearen kontra jokatzeko duen partida irabazi beharko luke, eta Alavesek Atletico de Madrid B-ren kontra gaitzea edo berdintzea. Maitane Vilariño Osasunaren ezinbesteko jokalarietako bat bilakatu da eta gorritxoek 1. mailara igotzeko itxaropenari dute.

Irati Igoaren Mulier taldeak Espainiako 1. Nazional Mailari eutsi nahi dio. 3 jardunaldi ditu aurretik, lehena larunbatean, 16:30ean Tolosaren kontra jokatzeko dutena. Aurreko jardunaldian Mulierrek 2 eta 0 irabazi zion Oiartzuni, Irati Igoak sartutako bi golekin. "Bi golak sartu, gainera 2 eta 0 irabazi... oso pozik nago. Garaia zen. Hiru partida falta zaizkigu liga bukatzeko. Gauza oso zaila dago, aitortzen dut, baina gertatzen dena gertatuta ere, beti aurrera!" azaldu du etxarriarrak.



Emakumezkoen senior mailako Xota B taldea sortu du aurten klubak, jokalarik guztiek jokatzeko aukera izateko. J.L. GORRIA

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 28

LAKUNTZA Lakuntzako izpiak. Ekirock. Aurkezpena. Saio didaktikoa.
12:15ean, herri eskolan.

ALTSASU Gazte agenda: Sexgunea.
17:30ean, Intxostiapunta gazte gunean.

LAKUNTZA Lakuntzako izpiak. Ekirock. Aurkezpena. Kontzertuak: Goruntz (Ibaitxo,

Martin eta Rikardo) eta Jon Gurrutxaga & Urbil Artola Kateak.
18:30ean, plazan.

ETXARRI ARANATZ Non dago Mikel? film dokumentalaren emanaldia.
Sarrerak: 4 euro.
18:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Isunen aurkako elkarretaratzea.
Isunen Aurkako Taldeak eta Ospak deituta.
18:30ean, udaletxearen aurrean.


ALTSASU Azken ostirala. Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.
19:30, udaletxe parean.

SAKANA Azken ostirala. Irurtzun, Uhartte Arakil, Lakuntza, Etxarri Aranatz, Arbizu, Bakaiku eta Altsasu. Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

LARUNBATA 29

IRURTZUN Bide berdeen eguna. Irurtzango Autokarabana eta bizikleta gunearen mustutzea.
10:30ean, gunean.

ETXARRI ARANATZ Haurren eguna. Euskal mitologiaren inguruko erakusketa.
EAGAK antolatuta.
11:30ean, plazan.



ETXARRI ARANATZ Haurren eguna. Ipuin kontalaria: Xabier Artieda.
EAGAK antolatuta.
12:30ean, plazan.

ARRUAZU Estalpeari buruzko batzarra. Arkitektoak landutako proposamena aurkeztuko du.
17:00etan, udaletxeko ganboikoan.

ETXARRI ARANATZ Haurren

eguna. Play Back txapelketa.
EAGAK antolatuta.
18:00etan, plazan.

ALTSASU Gazte agenda: Txirindulak konpondu. Doan.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Pentsio publiko duinak! Sakanako pentsiodunen mugimenduaren manifestazioa.
18:30ean, Foru plazatik.

IGANDEA 30

EGIARRETA Maiatzeko bizikleta ibilaldi berezia.
Ordu eta erdiko bizikleta ibilaldi berezia.
10:00etan, Itxasperrin.

EGIARRETA Maiatzeko bizikleta ibilaldi berezia. Ipuin kontalaria: Izaskun Mujika.
11:30ean, Itxasperrin.

EGIARRETA Maiatzeko bizikleta ibilaldi berezia. Jolas herrikoiak eta bizikletak konpontzeko tailerra.
Bigarren eskuko kirol materialaren bilketa Apoyo Mutuo-Elkarri Laguntza elkartearendako.
12:00etan, Itxasperrin.

ETXARRI ARANATZ Hutsun txalaparta eta Ortzi taldeen Urbasa ikuskizuna.
19:30ean, plazan.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 31

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, udaletxearen parean.

ZINEMA

ALTSASU

ORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Ez, eskerrik asko! La ventana de Gladys film dokumentalaren emanaldia
Ostirala 28: 19:00

Mía y Moi gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Igandea 30: 19:30

Poliamor para principiantes gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 3: 19:30

DORRAO Kafe konpondu 2021.
17:30etik 19:30era, frontoian.

ASTEARTEA 1

ZIORDIA Kafe konpondu 2021.
17:30etik 19:30era, plazan (eguraldi txarrarekin frontoian).

UHARTE ARAKIL Emakumeak elkarrekin dantzaren tailerra.
Irakaslea: Nora Otsoa de Olza Garatea.
18:00etatik 20:00etara, udaletxearen goiko aretoan.

ASTEAZKENA 2

URDIAIN Kafe konpondu 2021.
17:30etik 19:30era, plazan (eguraldi txarrarekin frontoian).

OSTEGUNA 3

DORRAO Kafe konpondu 2021.
17:30etik 19:30era, plazan (eguraldi txarrarekin frontoian).

ALTSASU Juantxo Skalari Unplugged kontzertua.
19:15ean, gaztetxearen plazatxoan.

Bazkide Zozketa

URTARRILEKO SARIAK

1. SARIA

Iker Zeberio Aiestaran (Urdiain)

2. eta 3. SARIAK

Lourdes Egurza Azpiroz (Lakuntza)

Julio Gartzia Roman (Altsasu)

Helena Lizarraga Ondarra (Arbizu)



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com - www.dekovennavarra.com
Ibarrera industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU - Tel./Faxa: 948 468 360 - Telefono mugikarra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Etxarri Aranatzen, Enfermogurute demioan, 8500m²-ko lursaila salgai: gutiz hesituta dago eta 8 metro eta erdiko sakonera duen putzua du. Deitu 669 809 955 tfnora.

LAN ESKAINTZA

Irurtzango igerilekue-tako taberna kudeatzeko eskaintza: Baldintzak kontsultatzeko udalerean galdetu edo www.irurtzun.eus webgunean irakurri. Eskabideak aurkezteko epea gaur, ostirala, 14:00etan amaitzen da.

IKASTAROA

Bertso Elkarteak antolatuta Bertso udalekuak: Aurreko urtekoen aldean, lagun eta egun kopuru gutxiagokoa izango da egonaldi bakoitza. Sopela, Orrio, Uitz eta Amaiur artean 5 eguneko zortzi txanda osatu dira, haur edo gazte bakoitzak bakarra aukeratu ahal izango du. Izen ematea maiatzaren 25etik 31ra izango da. Ekainaren 9an erantzun zuzena eman duten guztiei udalerean partzeko aukerarik ote duden. Informazio gehiago 943 694 129 tfnoan (astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara), aisialdia@bertsozale.eus helbide elektronikoan edo www.bertsozale.eus webgunean.

OHARRA

Arakilgo Udako Aisialdi Kanpua: Aurtengo egoera bereziari erantzunez haur kopuru gutxiagoko bi txanda antolatu dira. Bietako bat aukeratu behar da: 1. Txanda

Uztailak 19-30 eta 2. Txanda abuztuak 2-13. Adina 5 - 12 urte bitartean. Orduetara goizeko 10:00etatik 13:00etara. Prezioa: Plaza mugatuak direnez aukeraketa irizpideak honako hauek izango dira: 1. Arakilen erroldatuak, 2. Arakilen bigarren etxebizitza dutenak, 3. Irurtzunen erroldatuak eta azkenik beste guztiak. Arakilen erroldatuak 40 euro / ez erroldatuak 50 euro. Izena emateko azken eguna uztailak 2. Informazio gehiago 634 584 223 telefonoan.

Komunikazio Udaleku irekiak: Mondragon Unibertsitateak eta Goiena Komunikazio Taldeak Komunikazio Taldeak antolatuta eta DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteei zuzendua eta euskaraz. Gazteak modu kritiko, praktiko eta dibertigarrian komunikazioaren mundura hurbiltzeko helburuarekin antolatuta dituzte. Bi txanda egongo dira, uztailaren 5etik 9ra edo uztailaren 12tik 16ra. 9:00etatik 13:30era, Aretxabaletako MU-ren Komunikazio Campusean. Izena emateko epea zabalik dago ekainaren 18ra arte, prezioa 125 euro. Informazio gehiago 600 046 689 tfnoan edo komunikazioudalekuak@gmail.com helbidean. Izena emateko www.goiena.eus/bereziak/udalekuak web orrian.

Musika tresnak eta osagarriak biltzeko jarduerak solidarioak: Irakeko Kurdistanera (Domiz eta Duhok errefuxiatu kanpoetara) bidaltzeko *Guda hotza isiltzeko musika* kanpaina martxan. Instrumentuak zure musika eskolan edo ikastetxean eman ditza-

kezu maiatzaren 31a baino lehen. "Mugarik gabeko musikariak" eta El Salvador Elkartasuna GKE-en ekimen solidarioa.

Josefina Arregi Klinikatik eskaera: Eguneko Zentroan oroitzen ari diren, pertsona orainaldian orientatzeko xedearrekin. Tailerra egin ahal izateko klinikak garai bateko objektuak behar dituela jakinarazi du, esaterako: jostailuak, jolasak, landako edo etxeko tresnak, apaingarriak, eta abar. "Etxean horrelako objekturen bat baduzu, helaraz izaguzu Altsasuko gure zentrorra". Josefina Arregi Klinikak Lagunen Elkartea.

"Kubarako xiringak" kanpaina: Euskadi-Kuba Gobernu Kanpoko Erakundeak kontu korronte bat zabaldu du diru ekarpenak jaso eta Kubara eramateko xiringak erosteko helburuarekin. Kubak, beraien txerto proiektu bidez osatutako immunitate nahi du aurrean, baina, EEBB ezarritako blokeoak materiala erostea oztopatzen du. *Blokeoek hil egiten dute, zure elkartasunak Bizia ematen du.* Ekarpenak egiteko kontu korrontea: ES35 3035 0134 4313 4005 9271.

Mikel Arregiri buruzko liburua honako tokietan erosi daitezke: Lakuntzan Ogi berrin, Aliproxen eta Estankoa; Etxarri Aranatzen Kaxeta liburu dendan eta Altsasun Arkatz liburu dendan. 15 eurotan dago salgai iragarki@guaixe.eus www.iragarkilaburrak.eus

JAIOTZAK

- **Meryan Sakhi**, maiatzaren 18an Etxarri Aranatzen
- **Elias Hajjami El Idrissi**, maiatzaren 18an Altsasun
- **Yan Zhou**, maiatzaren 19an Altsasun
- **Abdu Luchaa Chej**, maiatzaren 19an Irurtzunen
- **Zuberoa Satrustegi Garcia**, maiatzaren 20an Arruazun
- **Anas Dabi Hanine**, maiatzaren 21ean Irurtzunen


HERIOTZAK

- **Jose Ignacio Razkin Arratibel**, maiatzaren 21ean Uharte Arakilen


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 28




Larunbata, 29



Igandea, 30



Astelehena, 31



Hemen eta online

iragarki laburrak .eus

iragarki laburrak .eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUSWWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.


ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarki Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa bame dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Kilimak euskarazko runba taldeak kontzertua eskainiko du Etxarri Aranazko plazan. UTZITAKOIA

Kilimak taldea, kilimak eragiteko prest

Ekainaren 6an, igandea, 19:30ean, euskarazko runba egiten duen taldeak kontzertua eskainiko du Etxarri Aranazko plazan. Taldearen helburua jendea mugiaraztea eta ongi pasatzea da

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI ARANAZ Agus Garmendia Vidal musikaria rockeroa zen, Rock and Roll talde bat zeukan, baina runba eta musika estilo latinoak gustatzen zitzaizkion ere, "salsa eta antzekoak", haren izaera rockeroak onartu nahi ez bazuen ere. "Estopa eta horrela taldeak entzun nituen eta gustatu zitzaizkidan, eta rockeroa nintzen ez nuen hori onartu. Baina azkenean ateratzen dira gustatzen zaizkizun gauzak. Eta zergatik ez?". Duela hiru urte inguru, egun batean, lagun batekin gitarra jotzen hasi ziren eta runbak ateratzeko ziren: "Letra batzuk egiten hasi nintzen". Horrela sortu zen Kilimak taldea, "nahi gabe, intentziorik gabe". Lagunartean. Ekainaren 6an, igandea, 19:30ean, Etxarri Aranazko plazan emanaldia eskainiko dute.

Kilimak taldearen nahia jendea-ri kilimak sorraraztea da, horregatik jarri zioten izen hori. Runba ongi pasatzeko musika estilo bezala deskribatu du musikariak, eta taldearen helburua "dantzan jartzea, irribarreak sortzea eta jendea ongi pasatzea" da. "Gure

berezitasuna da runba euskaraz egiten dugula, abestiren bat erdaraz egiten dugu ere, eta beste estiloren bat lantzen badugu ere, kontzertua runba deskarga bat da".

Agus bere gitarrarekin hasi zen eta dagoeneko bost musikaririk osatzen dute Kilimak: Jone korista, Larra bateria jolea, Antxon baxu jolea eta Oskitz tronpeteta jolea. Pandemia iritsi baino lehen "bi udara topera" ibili ziren. "Topera". Ehun kontzertu inguru eman dituzte. "Plaza asko, txosna... inguru askotan ibili gara, festetan gehien bat. Baita Euskara ari du ekimenean ere". Azkenetako emanaldia Bartzelonan egin zuten Kutxabira egitasmoaren barruan. "Pila bat egin ditugu. Ez gara kexatzen. Bueno, orain bai, egoerak izorratu digulako".

Kontzertuak

Zuzenekoak dira, momentuz, Kilimak taldea entzuteko modu bakarra, ez baitute diskorik kalera-ru eta Interneten albiste bakarra elkarbanatu dute. "Jendeak esan digu diskoa grabatu behar genu-

la, eta horretan gaude. Azkenean, pandemia etorri behar izan du gu diskoa grabatzen jartzeko". Kontzertuetan oso gustura zeuden, eta emanaldiak "han eta hemen" zituztenez "pandemia iritsi zela eta serio jartzea pentsatu genuen". Lanean ari dira.

Egoera berezira egokitu behar izan dute. "Guretzako izan da... Kontzertu lasai bat, jazz edo horrelako estilo batekoa, eserita ondo. Baina gurea bezalako kontzertu bat, azkenean, energia eta dantza egiteko gogo horiek ematen dituela...". Alternatiba aurkitu zuten: "Bartzelonara joan ginenean bidaiari hasi ginen jendeak eserita egiteko koreografiak prestatzen". Aurretik ere bazuten koreografiaren bat, "baina gehiago sortzen hasi ginen eta jendearekin jolasteko moduak pentsatu genituen, kantatzen eta kantarazten". Jendeak hankak eta besoak mugitzen zituen eta "batzuk altxatu ziren ere momenturen batean".

Publikorekin konektatzea da helburua, beraiek ere parte har-

dezaten: "Denei gustatzen zaigu kontzertu batean feedback hori egotea". Konexioa egotea. Etxarri Aranazko kontzertua plazan izanenez, aire librean, giroa sortzen laguntzen du. "Gogotsu gaude, egia esan".

Runba

"Lehenengo kontzertuetako bat Hernanin jo nuela, ni bakarrik nengoela nire gitarrarekin lau kanta eta bertsoak jotzen, aurreko egunean flamenkoa euskaraz egiten zuen talde bat ikustera eraman ninduten". Sonakay zen, gerora "izena" hartu zuen taldea. "Baina ez da estilo berdina. Beraiena flamenko da, eta gurea gehiago runba, dantzatzeko. Antzekoak dira". Duela "urte asko" runba egiten duen beste talde bat egon omen zen, Mal de Ojo, "baina nik ez nuen entzunda". Runba eta euskaraz egiten duten "oso talde gutxi" daude.

Runbaren doinu "mugitu eta dantzagarriaren" atzean, mota askotako letrak daude: "Dantza egiteaz hitz egiten dugu, bizitzaren gatzari buruz; bizitzari gatz pixka bat bota behar diogula". Badituzte "gai sakonak" lantzen dituzten abestiak ere, Errutinaren tranpa abestia, esaterako. "Horretaz hitz egiten du, nola ibiltzen garen etxetik lanera, lanetik tabernara eta buleta. Zurrunbilo batean". Beste batean gizakien arteko erlazioei buruz hitz egiten dute, "nola enpatia falta dagoen"; Kontakatilu abestian txutxumutxuan aritzen direnen kritika bada, "besteei buruz gaizki hitz egiten ari dena; azkenean denok egiten dugula noizbait". Internetera igotako abesti bakarra da. Umore onarekin horrelako kritikak egiten dituzte. "Errieta botatzen baduzu ez dizu inork kasurik egingo, baina umorearekin tratatzen dituzuenean hobe sartzen da mezua".



BAZTERRETIK

BELE BELTZAK

Magic: The gathering

Magic bezala edo MTG laburduraz ezagutzen den karta jokoa da hau. 1993an Richard Garfield matematikariak sortu zuen eta Wizards, AEBko enpresak komertzializatu zuen. Sortu diren karta bilgarrien jokoetatik hau lehenengoa da. 2018 urteko datuen arabera, munduan 6 milioi jokalaria zeuden, 52 herrialdeetakoak. Horren opetsua izanda, 11 hizkuntzetara itzuli izan dira.

Joko honekin munduan zehar hedatzen den txapelketa sistema bat sortu da. Izan ere, jokalaria profesionalak daude, eta bigarren mailako karta merkatu bat ere. Internet bidez jokalaria askorekin joko honetara jolasteko aukera dago, ordenagailua edota mugikorra erabiliz.

Jolasteko modu ugari dago baina batez ere 2 nagusitzen dira. Lehengoa, jokalariai berak sortutako karta sortak erabiliz, eta bigarrena, lagunekin karta sobre batzuk erosiz eta horiekin norberak bere karta sorta eginez, arau batzuk jarraituz. Jokoa 2 jokalarirendako

pentsatuta dago, baina badira jokalaria gehiagorekin jolasteko aukerak ere.

Bost kolore ezberdin daude Magic-en, bakoitzak bere esanahi eta nortasunarekin. Beltza, Zuria, Gorria, Urdina eta Orlegia dira koloreak eta horietako bakoitzak "magia" estilo bat irudikatzen du. Kolorerik gabeko tramankuluak ere aurki daitezke eta kolore askotako kartak ere.

Zailtasun handiko eta arau askoko jokoa da. Beraz, zertan datzan jakiteko, azalpen labur batekin ez da nahikoa izango: jokalaria bakoitzak, 60 kartaz (gutxienez) osatutako sortarekin, aurkariari 20 bizitzak kendu behar dizkio, txandaka. Horretarako, "lurraldeak" jokatu behar dira horien "energia" erabiltzeko. "Energia" horrekin botere magikoak erabili behar dira (tramankuluak, sorginkeriak, izaki magikoak...) aurkariaren bizitza guztiekin bukatzeko.

Gaur egun, Sakanan bertan eros daitezke Magic kartak Altsasuko Zelai Bideoklubean. Garai batean, 13 urte edo genituela, Bele Beltzakeko kideok, hirietan erosi genituen gure lehengo karta-sortak. Ondoren, Koskobilu liburudendan erosteko aukera izan genuen. Nolako garaiak!

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Juantxo Skalarik 25 urte baino gehiagoko ibilbidea bete du musikaren munduan, betiere ska musikaren inguruetan dantzan. "Skalari izpirituak" jarraitzen duela esan du. Juantxo Skalari & La Rude Band taldearekin *Roots Markets* diskoa kaleratu du eta bira "merezi bezala" egiteko gogoz dago. Bitartean, *unplugged* edo kontzertu akustikoak eskaintzen ari da. Datorren ostegunean, ekainaren 3an, 19:15ean, Altsasuko gaztetxearen plazatxoan emanaldia eskainiko du.

Nola ikusten duzu zure musikaren ibilbidea?

Daukat sentsazioa nire musika ibilbidearen lehenengo etapa egin dudala, eta orain bigarrena datorrela. Atzera begiratzen dut eta esperientzia handiak bizitzeko zortea izan dut: Europatik eta Latinoamerikatik bira luzeak, kontzertu gogoangarriak eta musika munduaren milaka anekdota, non borrokarako prest egon naizen. Pandemiak agian Skalariren bigarren erasoaren meridianoa markatu du. Beste 25 urte aktibo egotea lorpen izugarria izanen litzateke...

Beti ska musikaren inguruan, zergatik?

Ska erreferente bat da, bai. Ez dakit meritua edo desmeritua den. Erritmo hau Jamaican jaio zen 1950ko hamarkadan eta transformazio eta mutazio ugari jasan ditu; ospe handiko momentuak eta xumeagoak. Niretako erreferentzia bat da, latente mantendu behar den hasiera puntu bat. Baina XXI. mendean egonda, musikaren garapena izan dela, eta bizi garen inguru sozial eta politikoa kontuan izan behar ditugu. Hau guztia *Roots Market* azken diskoan ikusten da, baita Skalarik historiaren disko bakoitzean ere.

Juantxo Skalari 'Unplugged' pandemiari aurre egiteko modu bat da edo aurretik buruan zeneukan?

Egia esan, Juantxo Skalari *Unplugged* kontzertuetan *JSK. Memorias de Kalle y Tren* liburuaren aurkezpenetan egin nituen formatu bat berreskuratu dut. Kontzertuak Skalariren geltoki desberdinetatik bidaia egiten du, liburuan bezala. Bai, *JSK Unplugged* pandemia garaietarako perfektua da; lokal txikietarako, antzokietarako, eta eserita egindako aretoendako. Gainera, azken hilabetetan garatuz joan gara,

"Skalari esentzia mantentzen da"

JUANTXO SKALARI MUSIKARIA

Pandemiaren erdian 'Roots Markets' diskoa kaleratu du Juantxo Skalari & La Rude Band taldeak. Ekainaren 3an 'Unplugged' kontzertua eskainiko du Altsasun



Juantxo Skalarik kontzertu akustikoa eskainiko du Altsasuko gaztetxean. UTZITAKOA

eta Skalarik erreperitorioa lau instrumenturako sortu dugu.

Berrasmatu edo hil?

Berrasmatu baino, egokitu. Bidean jarraitzea da gauza. Ez dut uste talde askok pandemiaren erdian diskoa aterako dutenik. *Roots Market* diskoa 2020ko urrian kaleratu genuen, eta aurkezpena online edo *Live Stream Concert* egitera behartu gintuen egoerak. Lehenengo Skalarik disko baten mundu mailako aurkezpena izan zen. Bidean jarraitzea posible bada, aurrera jarraitu behar dugu. Egokituz. Hori bai, Estatuan eta Euskal Herrian zehar egin behar genuen bira atzeratu behar izan genuen. Horren kontra ezin dugu ezer egin. Ari gara aurkezpen elektronikoren bat egiten Juantxo Skalari & La Rude Bandaren formatu naturalean, baina oso puntualak dira. *Unplugged* eskatzen digute gehien bat, garaietara hobe egokitzen delako. Dagoena da. Egia esan, gustua hartzen ari natzaio. Toki berri hauetan sortzen den dinamika gустatzen zait. Leku guztietatik ikasten da. Dena dela, urritik

"NIRETAKO SKA ERREFERENTZIA BAT DA, MANTENDU BEHAR DEN HASIERA PUNTU BAT"

"UNPLUGGED' FORMATUA PANDEMIA GARAIETARAKO PERFEKTUA DA; ESERITA ENTZUTEKO"

aurrera bira normalarekin hastea aurrekusi dugu.

Nolakoak dira 'unplugged' kontzertu hauek?

Formatu erdi akustiko batean egiten ditugu: kontrabaxu, biolina, gitarra akustikoa eta ahotsa. Erreperitorioa lau instrumentutara egokitu dugu. *Unplugged*-aren lasaitasunarekin baina abestien indarra galdu gabe, esentzia mantentzen delako. Skalari etapa desberdinetatik bidaia egiten dugu. Formatu berezia da, eta momentu batzuetan publikoarekin ere hitz egiten dut, kontzertu normal batean baino gehiagotan. Gertutasuna handiagoa da. Skalariren 25 urteko historiaren *hit* batzuk aukeratu ditugu eta *Roots Market* azken diskoaren abestiren bat egongo da ere. Kanta guztiek narrazio orokor bat osatzen dute, horretarako hautatuak izan dira.

Abestiak asko moldatu behar izan dituzu?

Abesti batzuek aldaketa garrantzitsua jasan dute originalarekin alderatuz eta beste batzuk lau instrumentuko formatura egokitu ditut. Formaturako egokiak diren abestiak aukeratu ditugu ere.

Nola ikusten duzu egoera? Eta etorkizuna?

Kulturaren egoera, eta musikarena bereziki, zaila da. Baina bizi garen munduaren isla baino ez da. Ikuspuntu horretatik ikusita, ulergaitza da nola musikaren sektorea, pandemiaren momentu zailenetan jendeari dena eman ziona, modu librean eta online kontzertuak eskainiz, eta beti gizartearekin bat egin duela hainbat kausa babestuz, orain laguntza behar duenean ahaztuta eta zigortuetako sektore nagusienetarikoa izatea. Ez da orokortu behar, baina bai sentitu naizela gizarte alde handi batengatik eta agintari askoren-gatik ahaztuta.

Proiektu berriak dituzu buruan?

Beti daude proiektuak buruan. Gertukoena *Roots Market* diskoak merezi duen bezala aurkeztea da; Euskal Herri, estatu eta Latinoamerikako bira batekin. Urritik aurrera eta neurri murriztatzailerik gabe egitea espero dugu. Bitartean, uzten diguten erritmopean dantzatuko dugu, edukiera mugatuarekin, eserita, perimetro itxierarekin eta abarrekin *unplugged* formatuan.

11 GALDERA



Bikain tailerreko Goizeder Beltza Igoa eta Antxon Otaño Llorente.

"Pintura prozesu osoa ekologikoa da"

Bikain tailerrean garai berrietara egokitzen ari dira. Pandemia berrikuntzak egiteko baliatu dute, besteak beste, pintura prozesu prototipoa jarri dute martxan Goizeder Beltza Igoak eta Antxon Otaño Llorente tailerreko margolariak azaldu bezala

Eneida C. M. / Erkuden R. B. ARBIZU

1 Noiz sortu zen Bikain tailerra?

G: Goizeder: Joan zen urtean 40 urte bete zituen. Ezin izan genuen ospatu. Sortu zutenak orain jubilatzen ari direnak dira. Soldaduskatik etorri ziren, lagun kuadrilla bat elkartu zen, eta tailerra sortu zuten. Gero jendea sartzen eta ateratzen joan da.

2 Arbizon bakarrik sortu zuten?

G: Hemen tailer libre bezala sortu zen, eta gero 1994an edo 1995an Renault-ek hartu zuen eta Arbizon erakusketa jarri zuten. Gero Altsasun jartzeko aukera ikusi zuten, eta Altsasuko tailerra zabaldu zuten.

3 Orain non zaudete?

G: Pandemia bitartean bi tokietan egon gara. Sortzaileetatik edo fundatzaileetatik 6 jubilatuta dira, eta, beraz, jende asko joan da. Pandemiak ez digu lagundu, eta lehen salmentekin hemendik Altsasura joan ginen bezala, orain erabaki dugu hona ekartzea eta dena leku batean zentralizatzea. Renault eta Dacia erakusketa atarian daukagu eta behar izanez

gero kotxea ekartzen da edo bezeroarekin Iruñera joaten gara.

4 Nola antolatzen da tailerra? Zer egiten duzue?

G: Mekanika, elektromekanika eta berrikuntza bezala, autokarabana eta camper atala sortu dugu ere. Pandemiaren zer egin genezakeen pentsatzen, eta hau egitea bururatu zitzaigun. Horretarako jasogailu bat eta espezializatutako pertsona bat ekarri ditugu. Kotxe, furgoneta, autokarabana, karrozeria... denetarik egiten dugu.

5 Berrikuntza gehiago egin dituzue ere.

G: Serie 100 deitutako pintura prototipo bat daukagu. **Antxon:** Margo berria da eta gu Nafarroan tailer pilotu gara. Bakarrak gara. Hoberena da kutsadura askoz gutxiago sortzen duela. Erdia baino gutxiago. Europako legearen arabera kutsadura indizea 420 gramo litroko da eta margo guztien indizea gutxi gorabehera 400 gramo litrokoa da. Gure margoak 290 gramo litroko dauzka. Eragin ekologikoa askoz txikiagoa da.

Gainera, prozesu guztia da berria eta berritzailea.

6 Prozesua zertan desberdintzen da?

A: Dena da. Lehertzeko denbora askoz motzagoa da, orduan gasoil gutxiago erretzen duzu, elektrozitate gutxiago eta abar. Pintura hasi eta bukatzeko prozesu osoa da ekologikoa. Laburragoa denez, kontsumoa murrizten da eta kutsadura gutxiago sortzen du. Inprimazioa ere izpi ultramoreen bidez egiten da, dena aprobetxatzen dugu eta gutxiago kutsatzen du ere. Ez dago disolbatzailerik, hondakinik... Garestiagoa da, baina kontsumoan jaisten da.

7 Tailerrarendako inbertsio handia izan da?

G: Bada. Baina ez baduzu inbertitzen eta aurrerapausorik egiten, atzean gelditzen zara.

8 Formakuntzarik egin behar izan duzue?

A: Ikastaro bat egin nuen eta margo teknikariak etortzen dira. Trebatzen jarraitzen dut. Prototipoa denez jarraipen bat izan behar du. Otsailean Guadalajaran

egon nintzen margo lantegian eta han margotzeari eta produktu berriei buruzko ikastaro bat egin nuen. Ez dakit noiz zehazki baina itzuli beharko naiz beste ikastaro bat egitera. Formazioak hemen jarraitzen du ere.

9 Probatu al duzue?

G: Bai. Egutero ari gara probatzen. Gure kotxeak lehenengoak izan ziren. Oporretan etorri ginen makina zaharra kentzeko eta berria jartzeko.

10 Halako erronkek gehiago motibatzen zaituztete?

A: Bai, noski. Guretzako erronka berri bat da. Etorkizunera aurreratu gara. Legeak kutsadura maila jaisten joango dira, eta gure asmoa etorkizunerako pausoa

egitea zen. Azkenean, hau etorkizuna baita; kutsadura gutxiago, prozesu garbiagoa eta azkarragoa. Karrozerian gure borroka beti da denbora, eta prozesu honetan denbora aurrezten da: kotxea sartzen duzu eta ordu erdian atera daiteke. Lehen hiru ordu egon behar ziren.

11 Tailerraren sortzaileek zer esaten dute?

G: Hasieran ez zitzaien asko gustatu. Ikusi ondoren, bai. Bizitza osoa egon dira pintatzen prozesu berdinarekin eta orain aldatzea... baina emaitzak ikusi dituzte, eta oso onak dira. Kotxe asko egin ditugu eta emaitza espero genuena baino hobea da. Gerta zitekeen pentsatzea munduko hoberena zela eta gero ez izatea, baina ez. **A:** Emaitza benetan ona da.

BA
DA
TOR